



Elkarrekin bestelako ereduak sortzen

Herritarrek energia-komunitate bat sor dezaten,
prozesua erraztuko du Udalak



Zubikoa kiroldegiko plaka fotovoltaikoak. KONTZEJUPETIK

Energia-komunitatea, herritarrekin energiaren erronkari aurre egiteko

- > Oñatik iraunkortasunarekin duen konpromisoan urrats bat aurrera egiteko, herritarrek energia-komunitate bat sortzeko prozesua abiatuko du Udalak.
- > Proiektua herritarrek proposatu eta aukeratu zuten, 2023-2024ko partaidetzazko aurrekontuetan

Herritarrek energia-komunitate bat sortzeko prozesua erraztu eta bultzatuko du Udalak. Prozesua abiatzeko lehen hitzordua datorren irailaren 18an da, eguaztena. Egun horretarako, herritar orori zuzendutako lehenengo bilera irekia deitu dute Eltzian, 18:00etan. Klimaren eta energiaren gaiarekiko kezka edo jakin-mina duen edonork har dezake parte.

2023/2024ko partaidetzazko aurrekontuetan herritarrek proposatu eta aukeraturako proiektua da herritarrek energia-komunitateak

sortzeko Udalak prozesua erraztea. 500.000 euroko aurrekontuaren barruan, herritarren boto gehien jasotako bederatzi proposamenek egin zuten aurrera eta horien artean da energia-komunitatea bultzatzearena. Guztietan laugarren proposamen bozkatuena izan zen, 369 botorekin (%45,17). Hala, herritarrek energia-komunitate bat sortzeko prozesua laguntzeko 40.000 euro bideratuko ditu Udalak, aholkularitza eta dinamizazio lanetarako. Asmoa da, lehen-lehenik,

herritarrek osaturiko mahai bat eratzea, eta mahai horrek erabakiko du zein bide hartuko duten etorkizunean. Proiektuak, bete-betean egingen du bat Oñatiko Udalak iraunkortasunaren alde hartutako bidearekin.

Lehen bilera irekia irailaren 18an izango da, 18:00etan, Eltzian; herritar ororendako da deia

ENERGIA-KOMUNITATEAK

Klima larrialdia eta trantsizio energetikoa dira, seguru asko, XXI. mendeak ekarri dituen erronkarik nagusienetakoak. Europako Batasunak 2050erako klima neutraltasuna lortzeko helburua jarria du; hau da, isurtzen den CO2 kopurua luurrak xurgatu dezakeenaren parekoa izatea. Energiaren sektorea da, energia fosilen erabilera (petrolio, ikatz eta gasa), berotze globalaren eragile handienetako bat, CO2 isurketa gehien sortzen dituen sektorea den heinean. Euskal Herrian erabiltzen den energiaren %85 inguru erregai fosiletatik dator oraindik ere, eta, egoera horretan, hainbat zientzialarik, elkartek eta erakunde urteak daramatzate herritarren kontzientziak piztu eta jendartea egoeraz jabetu, sentsibilizatu eta aktibatu nahian. Zenbait erakunde sustatzen ari diren proiektuen eta neurrien artean badira energia-komunitateak. Horiek erakunde publiko eta enpresa txikiak elkartuz osatutako erakunde mota berri bat dira, energia kontsumoaren murrizketa eta energia berriztagarrien sustapena

helburu dituen. Europatik bultzatzen ari diren eredu bat dira, herrien menpekotasun energetikoa murrizteko, subiranotasuna ipar, energia iturri iraunkorren erabilera, eta herrien eta auzoen garapen komunitarioa eta ahalduntzea helburu. Eta Oñatiko kasua desberdina bada ere –Oñatiko Ur Jauziak enpresarekin eta bes-telako proiektu batzuekin energiaren kontrola herrian gelditu dadin lan egin du beti Udalak–, energia, oinarriko behar bat, esku pribatuetan utzi da azken hamarkadetan eta energia-komunitateen sorkuntzak, besteak beste, herritarrei protagonismoa eman eta sektoreko enpresa handien boterea deszentralizatzeko ere bali du.

HAMAIIKA ONURA

Energia-komunitateek ingurunean sortzen dituzten onurak askotarikoak dira. Trantsizio energetikoaren norabidean energia eredu aldaketa da lehentasuneko erronka eta komunitate horiek norabide horretan laguntzeko tresna dira: tokiko sorkuntza bultzatzen dute; energia faktoretan aurrezpenak eragiten dituzte; tokiko ekonomia garatzen dute eta komunitatea bere jardunaren inguruan hartuko dituen erabaki guztien jabe da.

Debagoienean badira hainbat adibide. Duela urte gutxitik hona, hainbat herritan eman dira energia-komunitateak sortzeko urratsak. Ber-

garako Berener, Elgetako Ixotzen eta Leintz Bailarako Ekio-la dira adibideetako batzuk. Bailaraz kanpo ere badira beste hainbat eta hainbat adibide ere.

UDALARENDAKO, GAKO

Azken batean, trantsizio energetikoan herritar gisa aurrerapausoak emateko modua dira energia-komunitateak. Eta Udalarendako tresna garrantzitsu herritarrek ahal-



Izaro Elorza alkatea, jardunaldietan. KONTZEJUPETIK

dundu eta aktibatze bidean. Bestalde, gogora ekarri behar da herritarrek eurek proposatu eta euren botoei esker partaidetzazko aurrekontuen bitartez onartutako proiektu bat dela, eta hori ere bada gako Udalarendako.

ENERGIA PLANAREKIN BAT

Udalak energiaren alorrean gizarteak dituen erronkei erantzuteko asmoz 2022an aurkeztu zuen Energia Planaren testuinguruan ere ulertu behar da energia-komunitatea sortzeko prozesua. Energia Plana hasiera batean izaera askotariko zortzi esku-hartzek osatzen bazuten ere, energia-komunitateak sortzeko prozesua hura elikatzen ere badator. 2022an aurkeztutako Ener-

gia Plan hori ari da bere emaitzak ematen; hor da, esate baterako, Oñatiko Energiaren Bulegoa, herritarrei energiaren eta gas kontsumoaren gainean dituzten zalantzak argitu, merkatuan daudden aukerak azaldu eta, orokorrean, energiari lotutako gaien inguruan aholkularitza zuzena emateko. Energia berriagarrien merkaturatzailerak sortze prozesuan ere badabil Udala, argindarraren

INDARRAK BATUTA

Energia-komunitatea sortzeko proiektua erraztearekin, energiaren alorrean erantzun beharreko erronkak herritarrekin batera lantzeko bidea hasia du Udalak. Alde horretatik, bide hori ahalik eta parte-hartzaileena izan dadin eta herritarrek energiaren gaiaren eta energia-komunitateen gainean informatu, sentsibilizatu eta ahalduntzeko helburuarekin egin ziren ekainean *Energiaren Zikloa Aktibatu* jardunaldiak, energia-komunitateen sortze prozesuaren aurrelanketa gisa uler daitekeen zikloa. Zikloaren baitan, hiru hitzaldi egin ziren maiatzean eta ekainean zehar. Oñatiko egoerari eta aukera energetikoei buruz berba egin zen lehenengoan eta argindarraren merkaturatu egun nola dagoen azaldu zen bigarrenean. Azken hitzaldia, berriz, energiaren gaiari erantzun kolektiboa nola eman dakioken argitzeko helburuarekin egin zen. Ziklo horren baitan, Oñatiko energia azpiegiturak ezagutzeko irteera ere egin zen; Olateko zentral hidroelektrikoa eta Oñargiren Bustinzuloko azpiestazioa bertatik bertara bisitatu zituzten. Azkenik, Debagoienan 2030 erakundearen eskutik, *Debagoieneko egoera eta aukera energetikokoak* izeneko erakusketa egon zen ikusgai Kultur Etxean.

PROZESUA HASTEAREN

Orain, irailaren 18an hasita, energia-komunitatea eratzekeo prozesua abiatuko da. Deialdia irekia da, norbanako, elkarte, komertzio, zein enpresa guztiei zuzendua. Klima larrialdiaren erronkari erantzun komunitarioak ematea da helburua.

Udala eta herritarrek elkarrekin aritzeko modua ere bada abiatuko den prozesua. Halere, elkartu- →

Udalak 2022an aurkeztutako Energia Planaren testuinguruan ere ulertu behar da proiektua

Energia-komunitatearekin, herritarrekin batera energiaren erronkari erantzuteko bidea hasi du Udalak

→ ko den herritarren taldeak autonomia izango du energia-komunitatea sortze bidean hartu beharreko erabakiak hartzeko. Aukera guztiak daude zabalik. Izan daiteke batzen den taldeak energia-komunitatea ez eratzea erabakitzea eta energiaren gaineko beste lanketa batzuk egiteko hautua egitea. Taldeak erabakiko du energia berriztagarrien sorkuntzara bideratutako proiektuak martxan jarri edo kontsumoan eragingo duten proiektuak bultzatu edo sentsibilizaziora bideratutakoak. Baliteke elektrikoaren hedapenarekin lotutakoetan edo eraikinen birgaitzean arreta jartzea erabakitzea.

GONBIDAPENA ZABALIK

Lehen hitzordua hilaren 18an da, eguaztena, 18:00etan Eltzian. Prozesuan lagundu, aholkatu eta dinamizatzeko 40.000 euro bideratuko ditu Udalak. Talde horri bidelaguntza eskainiko dien bi eragile kontratatuko ditu horrela. AISE kooperatibak egingo ditu dinamizazio lanak eta Goienerrek emango du aholkularitza teknikoa.

Energiaren gaiaz informatu, ekarpena egin edo entzuteko gogoz dauden herritar guztiak gonbidatu ditu Udalak irailaren 18ko bilerara. Bertan emango da energia-komunitateen gaineko informazio zehatza, eta han ikusiko da zein aukera dauden herritarren energia berriztagarrien sorkuntzan eta kontsumo murriketan eragiteko.

Elkartuko den herritarren taldeak autonomia izango du komunitatea eratzeke hartuko diren erabakietan

"Proiektu konkretuek baino gehiago, egiteko moduek dute garrantzia"

ANIK ZUBIZARRETA ARTURO PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO BATZORDEBURUA

Energia-komunitatea sortzeko prozesua lagundu eta dinamizatzea 2023/2024ko partaidetzazko aurrekontuetan herritarrek onartutako proiektuetako bat izan zen.

Nola egin zen prozesua?

Herritarrek euren proposamenak egin zituzten; guztira, 273. Banan-banan begiratu, eta baldintzak betetzen zituztenek egin zuten aurrera: 158k. Horiek multzokatu egin ziren antzekotasunagatik, eta 76 proposamen bihurtu ziren. Herritarrekin egindako bilera irekietan lehenetsi egin zituzten proposamenok, eta 47k egin zuten aurrera. Ondoren, udal teknikariek proposamen horien gaineko bideragarritasun tekniko-ekonomikoko azterketa egin zuten eta gauditutakoak bozketara pasa ziren: 21.

Energia-komunitateak ahalbidetzeko proiektuak zenbat boto izan zituzten?

Besteekin alderatuta asko? Gutxi?
Guztira, 849 boto-paper jaso ziren – baliadunak, 818–. Herritar bakoitzak sei proiektu aukeratu behar zituzten. Energia-komunitateen gainekoa laugarren proposamen bozkatuena izan zen, 369 botorekin (%45,17). Hain zuzen ere, proposamen bozkatuenak 440 boto jaso zituzten (%53,86).

Udalak energiaren gainean duen lanketak nola egiten du bat proiektu horrekin?

Halako proposamen batek zentzua dauka eta bat egiten du udalak egin duen lanketan eta dituen asmoetan. Kasu honetan, partaidetzazko aurrekontuetako proposamena nahiko zehatza zen eta izan zitekeen udaletik komunitateak sortzeko baliabideak eskaini eta horretan geratzea. Baina, hain justu, energiaren gaineko udaleko lanketa integralaren baitan zentzua duenez eta lotuta dagoenez, prozesu zabalago baten baitan txertatu dugu.

Zein garrantzi du herritarren parte-hartzeak Oñatiko udalarendako?

Proiektu edo prozesu konkretuek baino gehiago, egiteko moduek du garrantzia, politikak garatu eta proiektuak aurrera



KONTZEJUPETIK

eramatea nola ulertu eta egiten dugun. Agian, hitz bat jartzekotan, *parte izatea* aipatuko nuke; herritarrek parte diren politikak eraikitzea, elkarrekin egitea. Partaidetzazko aurrekontuak bide horretan ekimen bat gehiago dira. Ondo daude eta horiekin jarraituko dugu, baina oso gauza konkretua dira, eta hasi eta bukatu egiten dira. Aipatu berri dudana eredu hori, baina, zerbait iraunkorragoa da, non kokatzen garen, nondik begiratzen dugun eta nola eta norekin egiten ditugun politikak.

Zer espero da oraingo proiektu honekin?

Lehen aipatu bezala, herritarren proposamenak eta udala energiaren gainean garatzen ari den lanketak lotura dute. Hala, proiektu hau aukera bezala ikusten dugu elkarrekin pentsatzeko eta ideiak eta alternatibak lantzeko; are gehiago, herritar batzuen aldetik gaiarekiko interesa dagoela ikusita. Azken finean, aukerak zabaltzen ditu parte-hartze prozesu honek. Prozesuari ekitear gaude orain; beraz, ikusiko dugu zertan amaitzen den eta zein forma hartzen duen.

"ENERGIA-KOMUNITATEENA LAUGARREN AUKERA BOZKATUENA IZAN ZEN"



Ikastaroari buruzko informazioa duen diptikoa. OÑATIKO UDALA

Aisialdiko begirale titulua lortzeko aukera

Ikastaro bat eskainiko du Udalak, Hezten aisialdi euskaltzaleak dinamizatuko duena

Bi urtean behin egiten duen moduan, aurten ere aisialdiko begirale titulua eskuratu ahal izateko ikastaroa eskainiko du Udalak, urriaren 19aren hasi eta maiatzaren 31ra arte iraungo duena.

Hezten aisialdi euskaltzaleak dinamizatuko ditu sei ordukoak izango diren 25 saioak. Informazio gehiago, 688 74 49 32 telefono-zenbakira deituta edo iakizu@onati.eus-era idatzita.

Ikastaroa, urritik maiatzera

Norentzat

Aisialdiko hezitzaile eta dinamizatzaile soziokultural izan nahi dutenentzat.

Titulazioa

Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulu ofiziala. Oñatin eta euskaraz eskuratzeko aukera eskaintzen du Oñatiko Udaleko Hezkuntza Sailak.

Iraupena

150 ordu teoriko eta 160 ordu praktikoa. Azken horiek egitasmoren batean egin beharko dira 2026ko iraila baino lehen.

Datak eta ordutegia

Urriak 19 eta 26; azaroak 9, 16, 23 eta 30; abenduak 14, 23, 26, 27 eta 30; urtarrilak 3, 11 eta 25; otsailak 1, 2, 15 eta 22; martxoak 8, 15 eta 22, apirilak 5; maiatzak 17, 24 eta 31. 09:00etatik 15:00etara izango dira saioak –gehienez, 24 ordu gal daitezke–.

Baldintzak

Atal teorikoa egiten denerako 18 urte beteta edukitzea eta DBHko titulazioa izatea.

Informazioa jasotzeko bilera irekia

Irailaren 17an, asteartea, 18:00etan, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta kalea, 18).

Udalak diruz lagundutako ikastaroa

Matrikulazioa 500 euro da. Halere, Udalak %75 ordainduko die langabeei eta ikasle direnei eta %50 gainontzekoei. Horretarako, Oñatin erroldatuta egon beharko da eta eskolen aprobetxamendu ona edo titulua eskuratu.

Izen-ematea, urriaren 9ra arte

•Izena emateko, beharrezkoa da online dagoen fitxa bete eta matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria atxikitzea. Ordainketa, hemen: ES05 3035 0005 3600 5090 0035 (Laboral Kutxa) edo ES45 2095 5057 4310 6002 4766 (Kutxabank).



Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak, ostalaritza eta zaintza arlokoentzat... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu.



MARITXU TELLERIA

"Ilusioa egingo lidake etxeko horman C1 mailako titulua ikusteak"

Erretiroa hartu ostean hasi zen euskaltegian C1 (lehen-go EGA) mailako taldean. Gaztetan ez zuen ikasteko aukera askorik izan, bere garaiko neska askok bezala, josten eta kozinatzen jakitea nahikoa zelakoan. Baina berari ikastea gustatu, eta jubilatuta ostean Unibertsitatean sartzeko titulua atera zuen aurrena, UNED-en, eta orain euskarako C1 titulua atera nahi luke. "Ez daukat titulua beharrik, baina hobetu egin nahi dut nire euskara, eta tarteka egiten ditudan akatsak zuzendu. Azken batean, kontua da ikasteko gogoia dudala, eta ez dizut ukatuko ilusioa egingo lidakeela C1 agiria etxeko horman ikusteak".



MALEN GESALAGA

"C1 titulua eskuratzea da helburua, baina nire euskara aberasteko balio izan dit"

Irakasle-ikasketak egiten ari da eta etorkizunean beharko duen C1 mailako agiria eskuratzeko asmoz jo zuen euskaltegira iaz. "Titulua lortzea da helburu nagusia, bai, baina horrez gain balio izan dit oharkabeen egiten nituen akatsak zuzentzeko, akats horien zergatiaz jabetzeko, eta, azken batean, nire euskara hobetzeko eta aberasteko, eta hori polita izan da. Gauza asko ikasten dira euskaltegian eta, beraz, animatu egiten dut jendea izena ematera, ez bakarrik titulua behar duten horiek, baita euskara maila hobetu nahi dutenak ere".



MARTIN IRIGOIEN

"Alfabetatzea, Oñatiko euskara, Hika ikastaroak... eskaintza oso zabala da"

Irigoiaren C2 mailako taldean aritu da, titulua eskuratzeko ahalegindu eta etorkizunera begira lagungarria izan daitekeelakoan. "Oso gustura ibili naiz. Nire ama hizkuntza euskara izan arren, ikasteko eta hobetzeko asko daukagula konturatzeko balio izan dit. Egia da lan asko eskatzen duela C2 mailak, astean sei eskola ordu dira, baina, esan bezala, asko ikasten ari naiz eta merezi du. Beraz, animatu egin nahi dut jendea euskaltegira etortzera, izan euskaldun zahar ala berri. Alfabetatze ikastaroak gain, Oñatiko euskara dela, hika ikastaroak direla... eskaintza zabala dago udal euskaltegian eta beti daude gauza interesgarriak".



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



IOSU CAMBESES

"Euskararekin berriz ere maitemintzeko balio izan dit"

Oposizioak gainditu ostean, bere lanpostuari dagokion B2 mailako agiria eskuratu eta zerrendan gora egiteko asmoz jo zuen euskaltegira iaz. "Horrez gain, azken urteetan baztertuta eta ahaztuta neukan euskarara gerturatzeko balio izan dit, galdutakoa berreskuratzeko eta euskararekiko berriz ere maitemintzeko. Titulua lortzea zen helburua, baina egindako bidea asko gustatu zait. Nire lan ordutegiarekin bateragarri egin ahal izateko goizez edo arratsaldez etortzeko aukera eman dit euskaltegiak eta oso gustura egon naiz. Irakasleek eskantako laguntza eta baliabideak ere oso eskertzekoak dira".



ELVIRA CHEBOTAREBA

"Oso ondo ulertzen dut zein garrantzitsua den euskara"

Erussiako Baxkiria errepublikan sortua da eta beraien kultura eta hizkuntza dute, *tartariera*. "Euskal Herria Espainian bezala", dio berak. "Oso ondo ulertzen dut zein garrantzitsua den euskara zuentzat eta, horregatik, ahalegin berezia egin nahi dut euskara ikasteko. Ingeleseztan eta gaztelaniaz ere hitz egiten dut, eta euskaraz ere gero eta hobeto noa, poliki-poliki. Mugikorra ere euskaraz daukat eta denda nahiz tabernetan ere euskaraz egiten saiatzen naiz. Jendeak asko animatzen nau eta pozik nago. Gure bi seme txikiak ere oso gustura daude Oñatin eta bertan bizitzen geratu nahi genuke".



LUIS BENITEZ

"Euskaraz hitz egiteko gai izatea da nire helburua"

Paraguaikoa sortzez, bost urte darama Oñatin, eta *Auzoko* programaren bidez izan zuen lehen hartu-eman euskararekin. Zehazki, Guaraniera —bere ama hizkuntza— eta euskara lotzen zituen kartel bat ikusteak erakarri zuen. Gerora, oinarritzko ikastaro pare bat egin zituen euskaltegian eta iaz hasi zen A1 mailako agiria eskuratzeko asmoz. Ostalaritzan ari da lanean eta belarria lantzeko aukera ematen dio horrek. "Gustatzen zait jendeak niri euskaraz egitea. Gaztetxekoekin ere egin izan ditugu proiektuak elkarlanean eta hori ere oso lagungarria da. Oñatin bizitzen geratu nahi nuke eta nire helburua da hitz egiteko gai izatera iristea".

EUSKARA IKASTARO BEREZIAK

Zaintzaileentzako



Hartzaileak: Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko zaintzaileak.

Helburua: Ahozko oinarritzko komunikazioa lantzea. Zaintza-lanak euskaraz egin ahal izateko oinarritzko hizkuntza-baliabideak ezagutzea.

Iraupena: 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4 ordu eta erdi astean.

Ordutegia: 15:00 - 16:30.

Matrikula: Doan. Udalak finantzaturako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin adinekoak zaintzen lan egitea.)

Izen-ematea: irailaren 2tik 20ra.

Tabernari eta ostalarientzako



Hartzaileak: Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Oñatiko taberna, ostatu eta jatetxeetako langileak.

Helburua: Ahozko oinarritzko komunikazioa landuko da: bezeroak artatzeko erabiltzen diren hitz eta esaldi ohikoenak.

Iraupena: 60 orduko ikastaroa, urritik urtarrilera, 4 ordu eta erdi astean.

Ordutegia: 9:00 - 10:30.

Matrikula: Doan. Udalak finantzaturako ikastaroa. (Baldintza: Oñatin ostalaritzako establezimendu batean lan egitea.)

Izen-ematea: irailaren 2tik 20ra.

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARAZ

hARTu
hitZA


*Da el primer paso,
aprende euskera.*

Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto
2024-2025



UDAL
EUSKALTEGIAK
Curso de euskara. Euskara ikastaroak.

HADE 



"Dimentsio handia izan zuen duela 50 urte amerikarrek Oñatin egin zuten ikasturteak"

IÑAKI GALDOS IRAZABAL

'ABENTURA BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO' LIBURUAREN IDAZLEA

Hilabete honetan bete dira 50 urte AEBetako lehen ikasle taldea Oñatira etorri zenetik. Liburu batean jaso du gertaera hura Iñaki Galdos Irazabalek (Oñati, 1966). Udalak argitaratzen duen Jerardo Elortza bildumaren bosgarren zenbakia da. Herriko liburu dendetan dago salgai, hamar eurotan.

Nortzuk ziren haiek eta zergatik eta zertara etorri ziren Oñatira?

Testuingurua 1960ko amaieran eta 1970eko hasieran kokatu behar da. Ameriketako Estatu Batuetako euskal diaspora trantsizio berri batean sartu zen. Ordura artekoa nahiko presentziala zen: ardi batzuk, festa bat... Baina paradigma berriak hasi ziren sartzen. 1973an NABO sortu zen (North American Basque Organization), eta euskal etxeen artean ordura arte ez zegoen harremana, sarea, hasi zen sortzen. Nevadan, Jon Bilbaoren eta Bill Douglasen bitartez sortu zen euskal ikasketen zentro bat, baita Idahon ere. Dinamika berriak hasi ziren. Politikarako interesa ere piztu zen, eta 1970ean hainbatek bidaia bat egin zuten Uztaritzera, euskal kultura ezagutzera.

Uztaritzetik Arantzazura?

Bi urte geroago izan zen hori: bizpahiru aste Uztaritzen eta beste pare bat edo Aran-



Iñaki Galdos Irazabal, liburuaren idazlea. KONTZEJUPETIK

tzazun; programa osatua goa zen hura. Arantzazun zeudela Oñatira jaitsi ziren behin, eta harrিতuta gelditu ziren gaur egun Eltzia den eraikinarekin. Iruditu zitzairen zoragarria izango zela hara eramatea urte osoko ikas-

keta programa bat. Nevadakoek esan zuten hori gehiegi zela beraiendako, eta Boisekoek hartu zuten gidaritza. Pat Bieter, honen guztiaren bultzatzaile nagusia, Boise State University-ko irakaslea baina ikasle

moduan etorri zena bigarren bidaia hartan, 1972an hasi zen bi ikasturte geroago Oñatin egingo zen ikasturtea prestatzen.

Diozu ideia hori sarritan egon zela bertan behera gelditzeko arriskuan.

Ameriketara iritzi ezberdinak zeuden hango euskaldunen artean ere, baina Boiseko unibertsitateak babestu egin zuen, baita agintariek ere; Pete Cenarrusak tartean. Haren zabalkundea egin zuten AEB osoan, etorri ziren ikasle guztiak ez ziren-eta Boisekoak; batzuek ez zuten inoiz euskararekin inolako entzuterik edo harremanik izan ordura arte. Baina oztopo handienak hemen egon ziren. Bieter jabetu zen jendea aurka zegoela. Ez zekiten zer zen, eta zurrumurruak azkar zabaldu ziren: drogak edo prostituzioa ekarriko zituztela, ikasleen gurasoak hona etorriko zirela lursailak erostera, CIAkoak zirela...

Zerk konbentzitu zituen?

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Telesforo Monzon eta Juan Jose Etxabe ere uzkur zeuden. Ez zuten ezetz esaten, baina galdera asko zituzten: zenbat etorriko ziren, zertara... *Txillardegi* gogor ibili zen esaten ez zetozeala turismoa egitera, etorritakoan euskal erresistentziaren jarrera har-

tu beharko zutela... Jon Bilbaok, Arantzazun egondakoen artekoak, harremana zuen Monzonerekin, eta euren arteko korrespondentzia oso gogorra izan zela ere ikusi dut artxiboetan. Azkenean, etorri ziren. Guardia Zibilak eskolatuta egin zuten aireportutik Oñatirako bidea, eta harrituta utzi zituen horrek amerikarrak. Hori izan zen Iñaki Zumalde *Cabra*-k bonba batzuk jarri zituelako aurreko egunetan.

San Lorentzoko eraikinean egin zuten ikasturtea; osatu ere han hartu zuten? Bai. 76 ikasle ziren, irakasleez gain. Irakasle batzuk, gainera, Bieter kasu, familia osoarekin etorri ziren. Azkenean, 90 laguneko taldea.

Nolakoa izan zen lehen ikasturte hura? 1974ko irailaren 2an etorri ziren eta dena ondo joan zen, momentu baten salbu: 1975eko urtarrilaren amaieran, Franziaiko *France Soier* egunkariak berriz atera zuen CIAren gaia, baseetako bat Oñatin zegoela zioen albiste bat publikatuta. Kazetari asko Oñatira begira jarri ziren berriz; hiru bat aste iraun zuen zurrumurru hark.

Ikasi bakarrik ez zuten egingo, herria eta herritarrek ere ezagutuko zituzten; nolakoa izan zen harreman hura? Naturala, esango nuke. Orduko argazki askotan agertzen dira, adibidez, ikasle amerikarrak herriko tabernetan; Txaketuan eta Gurian, adibidez; Usakon... Eta hainbat argazkitan oñatarrak ere ageri dira eurekin batera. Ikasle haiek 19-20 urte zituzten, eta ibili ziren herrian, bai. Bestalde, kontuan hartu behar da 1974an



Duela mende erdi etorri ziren ikasleak eta irakasleak. KONTZEJUPETIK



Euskal dantzak ikasten Eltziako gimnasioan. KONTZEJUPETIK

Oñati herri itxiagoa zela, diktadura batean bizi zirela, baina harreman handiak sortu ziren, bai. 1975eko urritik abendura bitartean, esaterako, bi ezkontza izan ziren Oñatiko eta talde hartako kideen artean. Lehen taldekoen artean, William Petersen aktorearen alaba Oñatin jaio zen, eta lehen jaunartze bat, ezkontza bat eta irasle baten heriotza ere gertatu ziren.

Zer kontatu zuten eurek Amerikan Oñatiri eta bizitako esperientziari buruz? Lehen ikasturte haren ostean beste lau ere egin ziren Oñatin. 1975ean ez zen egon,

"Ameriketara baino oztupo gehiago izan zituzten hemen ikasturtearen proiektua martxan jartzeko"

baina bai 1976-1977, 1977-1978, 1978-1979 eta 1979-1980 urteetan. Hurrengo taldeak txikiagoak izan ziren, espedizio errazagoak. Egon diren ikasle askok Ameriketako aldizkariarendako kronikak idazten zituzten, eta horietako batean jaso zuten, adibidez, 1977an Oñatiko plazan nola bizi izan zuten ikurrinaren legeztatzea. Euren idatzietan gehien aipatzen duten hitza *abentura* da, baina hori baino askoz gehiago izan zen hura.

Zergatik diozu hori? Diasporan inflexio-puntua izan zen esperientzia hura. Hona etorri ziren bost urtee-

"Proiektu haren bueltan jende ezagun asko ibili zen: Monzon, Oñatibia, Bilbao, Bieter, Cenarrusa..."

tako ikasleen artean batzuk euskaldunak ziren, baina beste batzuk ez, eta hau non zegoen ere ez zekiten haien eta AEBetako euskaldunen arteko harremana beste bat izatea lortu zuen egitasmo hark. AEBetako euskal sarea zabaldu egin zuen, eta euskal mundua ezagutzea ahalbideratu. Boiseko, Idaho-ko, diasporan, adibidez, badu balio sinboliko bat Oñatik. Eta herri bien arteko harremana ondoen sinbolizatzen edo irudikatzen duena dira Gorpuztu Eguneko dantzak. Jesus Irizar *Txutxin*-i esker, Boiseko Oinkari dantza taldeak 1980an lehen aldiz dantzatu zituen Gorpuztu dantzak, eta, oraindik, urtero egiten ditu San Inazio egunean. Egun, Boiseko berezitasunetako bat dira dantza horiek.

Zegatik amaitu zen 1980an? Berez amaitu zen, baina esperientzia hark izan zuen kume bat eta badu segida oraindik. 1974ko lehen ikasturte hartako ikasleetako bat izan zen Karmelo Urza eta hari esan zioten Pat Bieterrek eta Bill Douglasek Oñatira etortzearena amaitu arren zerbait pentsatu behar zutela proiektu harekin jarraitzeko. Eta horrela, bi urte eta erdiko lanaren ostean, USAC sortu zuen Urzak, unibertsitateak jendea kanpora bidaltzeko programa bat. 1983an estreinatu zuten, Donostian. Ordurako, Euskal Herriko Unibertsitatea ere sortuta zegoen, eta harremanak bes-

"Oñatikoak izan du segida USAC programarekin; milaka ikasle bidali dituzte mundu osora ikasketak osatzera"

te batzuk ziren. USACek milaka ikasle bidali ditu 1983a ezkerro Euskal Herrira, nor bere esparruko ikasketak osatzeko. Oraindik ere mar txan dago programa hori eta Donostian dute bulegoa. Liburuko azken kapituluan dator hori.

Testigantza, argazki eta artikulua asko dituen liburuan.

Hura bizi zutenen testigantzak datoz, batetik, baina aukera ematen du garaiko kronika sozial eta politikoa ezagutzeko eta ikusteko proiektu haren bueltan jende ezagun asko ibili zela: Telesforo Monzon, Jon Oñatibia, Jon Bilbao, Pat Bieter, Pete Cenarrusa... Beti izan dut gogoia zerbait egiteko, eta, eurekin harremana aurretik izan arren, duela zortzi urte-edo hasi nintzen lanean. Alde bietako artxiboe-tan, Bieterrenean eta Bilbaorenean zein agustindarean topatu dut informazioa. Konturatu naiz ikasturteak baino dimentsio handiagoa izan zuela gaiak.

Eltzian dagoen erakustetan daude jarrita argazkiak eta bestelako elementu batzuk.

Hala da. Urriaren 7ra arte hilabetez egongo da zabalik, eta gero, Boisera eramango dugu. Ez da, akaso, berdin-berdina izango, baina han egongo da gero ikusgai. Liburua, berriz, ingelesera itzuliko dute datorren urtean.

Zer moduzko esperientzia izan da zurea?



DEBORA OUTSEN
1976-1977 KURTSOA

"Oñatiar batekin maitemindu nintzen. Joan-etorrian ibilita, bertan gelditu nintzen; 1980tik bizi naiz Oñatin. Sekulakoa izan da ospakizuna".



PATXI LOSTRA
1978-1979 KURTSOA

"Ez dut inoiz ahaztuko esperientzia hura; egun, hilabete gehiago egiten ditut Oñatin Boisen baino. Oso hunkigarria izan da antolatutakoa".

Argazki-galeria



KONTZEJUPETIK

Liburuaren aurkezpenean: Zapirain –Jerardo Elorza bildumako zuz.–, Galdos –egilea–, Elorza –alkatea– eta Bieter –Boise State University–.



KONTZEJUPETIK

Duela 50 urte ateratako argazkia errepikatu zuten urteurrena ospatzeko ekitaldietara etorritako amerikarrek Eltziako eskaileretan.



KONTZEJUPETIK

Lehendakariak eta alkateak harrera egin zieten ospakizunera etorritako amerikarrei; herriko kultur eragileek parte hartu zuten ekitaldian.



KONTZEJUPETIK

Erakusketa dago zabalik Eltziako Topagunean. Urriaren 7ra arte: astelehenetan 08:30-15:30. Gainerakoetan, 08:30-23-30 (sarrera, tabernatik).



Maite Alastui Kortabarría
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com



75. urteurrenako ekintzak antolatzen dabiren lantaldea, iraileko lehenengo batzarrean. ALOÑA MENDI KE

Aloña Mendiren 75. urteurrena

Jai potoloa izango da hilaren 20an plazan

Oñatiko Kirol Elkartearen urteurrena antolatzen dabiren taldea buru-belarri dabil irailaren 20an, egubakoitza, Oñatiko plazan egingo duten jai erraldoia antolatzen. Sail guztietako ordezkariak hartuko dute esku 21:00etan hasiko duten 'show'-an

Dagoeneko sei hilabete pasatzen dira Aloña Mendiko lagunek 75. urteurrenako ospakizunak hasi zituztenetik, eta denbora tarte honetan hamaika ekintza egin dituzte. Hitzordu potoloena, baina, irailaren 20an egingo dute, eta urteurrena antolatzen dabiren lagun taldea buru-belarri dabil egun horretara begira lanean. Datorrenari buruz berba egin aurretik, baina, egindakoa errepasatzea tokatzen da. Pozik daude orain artekoarekin. "Bai, sail guztien laguntzarekin ekitaldi sorta oparoa aurkeztu ahal izan genuen, eta, orokorrean, oso erantzun polita izaten ari gara. Lanpetuta, baina oso pozik gaude", adierazi

dute antolaketa taldeko kideek.

Hala, hasieratik garbi izan zuten herriko eragileekin elkarlanean herriarentzat berezia eta askotariko ekitaldiekin izango zen egitarau bat osatu nahi zutela. "Urteurrenerako sortutako leloak dioten moduan, Aloña Mendi Oñatiarron *taupadia* baita. Kirol elkarte hutsa baino askoz gehiago dela uste dugu. Aloña herritar ezberdinen arteko harremanak sustatu ditu, txantxikuarron bizi ohitura aktiboan eragin zuzena izan du, herri sentimendu bat garatu du... Txantxikuarrok daukagun altxor nagusietako bat dela esango nuke. Era honetako oso

elkarte gutxi daude gaur egun, eta harro egon behar dugu, baina, era berean, elkarte zentzu guztietan zaintzea ere badagokigu".

JAI HANDIA DATOR

Udazkenean beste hainbat ekintza egingo dituzte urteurrena ospatzen jarraitzeko, baina hitzordu handia irailaren 20rako aurreikusi dute. "Orain artekoa berezia izan da, baina egitarauko puntu garrantzitsuena egun gutxi barru etorriko den aurkezpen ekitaldia izango da. Kirol elkarte osatzen duten kideei eta, orokorrean, elkarte gertuko sentitzen duten herritar guztiei egin nahi diegun opari bat izango da.

Herriko plaza Aloña Mendiren bueltan gauden guztiontzako elkargune bilakatu nahi dugu. Elkarteko kirolari eta teknikari guztiak herritarrekin elkartu nahi ditugu".

Hilaren 20koa ez da aurkezpen ekitaldi ohikoa izango: "Ez, ez da ohiko aurkezpen bat izango, berezia izango da. Iluntzean hasiko da (21:00), argiztapen bereziarekin, pantaila erraldoi batekin, musikarekin... eta azken orduko sorpresaren batekin landutako ordubeteko *show* edo ikuskizun berezi bat izango da. Plaza bete nahi dugu. Ahalegin handia egin dugu egun hau Aloña maite dugunon memorian iltzatuta gelditu dadin". Eta jai horretara begira antolatuzaileek deialdia egin diete herritarrei: "Eskaera bat egin nahi dugu antolaketa talde-tik. Lehenik eta behin, elkarteko kideei, eta, noski, herritarrei ere bai, jai horretan parte hartzea garrantzitsua dela uste dugulako. Aurrez esan bezala, ekitaldi oso berezia izango da eta herriak Aloña Mendiren benetako tamaina zein den ikusi ahal izango du. Badakigu ostirala dela eta herritar batzuek, bereziki sasoi ho-

netan, kanpora joateko ohi-tura izaten dutela asteburuetan. Hori horrela, egun horretan herrian gelditzeko eskaera egin nahi diegu herritarrei. Horrelako ekitaldi bat oso gutxitan ikusteko aukera izango dute eta".

1.650 EURO HOTZ OÑATIRI

Aloña Mendiren 75. urteurrena ospatzeko antolaketa lanetan hasi zirenean zenbait ardatz zehaztu zituzten, eta horietako bi izan ziren ekarpen sozialarena eta elkartasunarena. Hala, urteurrenara begira zenbait *merchandising* produktu jarri zituzten salgai, eta hortik ateratako etekinak Hotz Oñati elkartearendako izatea erabaki zuten; alegia, laguntza gerratik edo gatazketatik ihes egin duten errefuxiatuei bideratzea. "Urteurrenerako propio diseinatutako arropa eta osagarriak osaturiko bi sorta osatu genituen, nagusiendako eta haurrendako, eta gure aurreikuspen onenak gainditu dituz salmentak. Guztira, 330 sorta saldu ahal izan ditugu eta, horri esker, 1.650 euroko ekarpen ekonomikoa egingo diogu Hotz Oñati elkarteari".

Irailaren 20ko jaialdia Aloña Mendiren bueltan dauden ordezkarien elkargunea izatea nahi dute



Sail guztietako ordezkariak, zuhaitz landaketa egunean. A. EGAÑA

75 URTE, ETA OSASUNTSU

Urteurren borobila ospatzen dabilta txantxiuarrak, baina zein osasun dute gaur egun Aloña Mendi kirol elkarte osatzen duten sailek? Hain zuzen, hausnarketa hori ere egin dute: "Orokorrean, elkarte osasuntsu dagoela esango genuke. Ez da batere erraza gaur egungo gizartean horrelako egiturak dituzten taldeak sostengatzea. Eta Oñatin, Aloñaren bueltan dabilta laguntzaileek, kolaboratzaileek, teknikariek, gurasoek eta abarrek egiten duten la-

Aloña Mendiko arrokekin eta osagarriekin osatutako 330 sorta saldu dituzte herritarren artean

na txapela kentzekoa da. Leku guztietan bezala, higadura eta errelebo falta sumatzen hasiak gara azken aspaldian, baina Aloñak urte askorako osasuna duela esango genuke".

Eta amaitzeko, orain arte antolatutako ekintzetan bizi izan dituzten momentu berezien gainean ere egin dute berba. "Denak izan dira bereziak. Zuhaitz landaketatik hasi eta infantil mailako futbol txapelketara. Denek izan dute azpimarratzeko zerbait. Arlo pertsonalean –Aratz Losadak hartu du hitza–, Realaren aurka jokatu genuen lagunartekoa azpimarratuko nuke. Aspaldiko partez Aloña Mendiko elastikoa jantzi, erreferente izan direnekin zelaia partekatu... eta, besteak beste, Azkoagaingo harmailak nola egon ziren ikustekak barrenak mugitu zizkidan".

Agenda oparoa

Irailak 20

Aloña Mendi KEren aurkezpena.
Foruen plazan (21:00).

Urriak 6

San Migel Pilota Txapelketa.
Finalak, Zubikoan (17:00).

Azaroak 6

Hitzaldia. 'Osasun mentala kirolean', zine aretoan (19:00).

Azaroa

Kirol materialaren bilketa solidarioa.

Abendua

Triatloi erronka.
Abenduan zehar egingo dute.

Abenduak 2

Aloña Mendiren 75. urteurreneko zenbaki berezia.
Etxez etxe banatuko da aldizkaria.

Oharra:

'aloñamendi.eus' atarian joango dira orduak zehazten.

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSONAK, LERROAK, LUB FLUTAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

BISEINATZAILA ETA MONTATZAILA
SOKALDIAK, KOMUNAK eta ASKIZ GONDOA

ORLAINA 12 8 4 km. - 20000 UNAI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13, Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

Olakuako irisgarritasun lanen bosgarren fasean murgilduta daude

- > Uztailean hasi zituzten lanak eta urte amaierarako amaituta egotea aurreikusten dute; dagoeneko ia bukatuta daude bi espaloi
- > Udalak duen Irisgarritasun Planera gehitu den beste bat Kale Zaharra eta inguruak irisgarriago egiteko proiektua izan da

Udalak Olakua auzoa irisgarriago egiteko lanekin jarraitzen du eta dagoeneko bosgarren fasean murgilduta dago auzoa. Oraingo honetan, Olakua 13, 14 eta 15. zenbakidun eraikinek osatzen duten plazatxoa eta inguruak egokitzen ari dira. Lanak 362.000 eurotan esleitu zitzaizkion Asfaltado y Construcciones Morga enpresari eta urtea amaitu aurretik bukatuta egotea espero da. Aurrekontu horren barruan, 16.000 euro ur sarea berritzeko lanei dagozkie. Lanen helburu nagusia oztopo arkitektonikoak saihestea da, eta Olakua herritar guztientzat irisgarriago egitea.

DENETARIKO LANAK

Uztailean ekin zieten lanei eta irisgarritasuna hobetzeko egingo diren esku-hartzeen artean dira, besteak beste, eskailera eta espaloietako altuerak, zebra-bideetako altuerak eta beste-lako oztopoak izan daitezkeenak saihestu eta moldatzea; bi espaloi dagoeneko ia bukatuta dituzte. Auzo zaharra izanik, espaloietako arketak eta fatxadatik iriteten den edozein oztopo ere saihestuko dira.

Horiez gain, herritarrek egiten dituzten ibilbideak –besteak beste, atarrietako sarre-irteerak, plazatxora iristeko bideak, alboko auzora iristeko bideak, zaborra ate-



Olakuako irisgarritasun lanen bosgarren fasean lanean. KONTZEJUPETIK

Lanak uztaileko bigarren astean hasi zituzten eta urte amaierarako amaituta egotea espero da

Olakuakoaz gain, Irisgarritasun Planaren barruan beste lan batzuk ere badituzte mahai gainean

ratzeko bideak edo behar bereziak dituztenendako aparkalekuetara iristeko bideak – identifikatu eta horiek ere ahalik eta irisgarrien egiten ahaleginduko da Udala; lan asko egingo dituzte horretarako.

IRISGARRITASUN PLANA

Olakua auzoan egiten ari diren irisgarritasun lanak Udalak duen Irisgarritasun Planaren barruan sartzen dira, eta, dagoeneko eginda edo gauzatzen ari diren proiektuez gain, beste lan batzuk ere mahai gainean dituzte,

aurrerago egiteko. Esate baterako, Mendiko kaleko lanak dira horietako batzuk. Izan ere, denbora da Udala lan horiek hasi nahian dabilena, baina bertako etxebizitzak egiten amaitu arte atzeratuta dituzte lanak. Irisgarritasun Planera aurten gehitu den beste bat Kale Zaharra eta ingurua izan da. Hain zuzen ere, horren barruan Kale Zaharra eta inguruak sartzeko dira: Otadui zuhaiztia, Lizaur kalea eta Aita Madina kalea. Plan horretako lanak bederatzi fasetan banatu ditu Udalak.

Usakoraino iritsiko den bidegorria egiteko lanak, hasierako fasean

- > Datozen asteetan lanak lizitaziora atera eta urte amaierarako hastea espero da; 2025eko udarako lanak eginda egotea aurreikusten da
- > Bidegorriaren proiektua Zuazolako zubiraino dago eginda, baina lehen fase honetan Ezibai baserriraino egingo da

Herriko bidegorrien sareari beste zati bat gehituko zaio datorren urteko udatik aurrera. Hala, herritik Usakoraino bizikletaz ez ezik, oinez seguruago joateko aukera ere egongo da. Gaur egun, herrigunetik oinez joanda Torreauzo auzoko zubian amaitzen da bidegorria, eta Udalak martxan jarri duen proiektuarekin Usakoraino luzatuko da bidegorri hori.

Bidegorriak jarraipena izango du Torreauzoko zubitik aurrera eta 700 metro inguru izango ditu zati berriak. Hasieran eskuineko bidetik joango da bidegorria, Chinchurreta enpresaren sarrera saihesteko; izan ere, kamioien sarreretan puntu itsuak egoten dira eta gune arriskutsutzat hartzen da Chinchurretako sarrera hori.

Sarrera hori igarota bidegorriak ezkerreko aldetik izango du jarraipena. Tarte horretan bide bazterretik doan zatian eta Upainetik aurrera bidea zabaldu beharra egongo da. Bidegorriari tokia egiteko 2,5 metro zabalduko da bidea zati horretan; bidea Ezibai baserriaren parean bukatuko da eta bertatik oinez sartu ahalko da Usakora, gaur egun egin daitekeen moduan. Lan horiekin oinezkoen segurtasuna nabarmen hobetuko da; izan ere, gaur egun, batez ere, uda sasoiaren arriskuguneak sortzen dira bidegorria joango den to-



kian autoan igarotzen direnen eta oinez paseoan doazen artean.

DATORREN URTERAKO

Proiektua dagoeneko egin da dago, baina datorren ur-

Udalak 569.000 euroko laguntza jaso zuen Europako Next Generation funtsetatik

Bidegorriaren lehen zatia egingo da orain, baina Zuazolako zubiraino egitea dago aurreikusita

teko udarako egongo da erabilgarri, aurreikuspenak betez gero. Datozen asteetan proiektua lizitaziora aterako du Udalak, 662.700 euroko –BEZ barik– aurrekontu estimatuarekin. Proiektu horretarako Udalak 569.000 euroko dirulaguntza jaso du Europako Next Generation funtsetatik. Behin proiektua lizitaziora atera eta esleipen prozesua igarota, urte amaierarako lanak hastea aurreikusten da. Datorren urteko uda sasoiarako bidegorria prest egotea espero da.

BIGARREN ZATIA

Usakorainoko bidegorriaren plana, ordea, ez da Torreauzotik Ezibai baserriraino eramango duen bidea erekin amaituko; izan ere, proiektu osoa Zuazolako

zubiraino dago eginda. Hau da, bizikletek eta oinezkoek bertaraino iristeko aukera izango dute. Datozen hila-beteetan egingo duten zatiaren jarraipena litzateke hori, eta aurrerago egingo du Udalak. Bidegorriaren proiektu guztia gauzatu, herrigunetik Usakoraino bizikletaz eta oinez modu eroso eta seguruan iristeko aukera izango dute herritarrek eta baita gainontzeko herrietatik etortzen direnek ere.

BAINU DENBORALDIA

Bidegorria iritsi bitartean, herribusaren zerbitzua da herritarrek Usakora joateko duten aukeretako bat. Doremekan amaituko da zerbitzu hori, hilaren 15ean, baina denboraldia amaitzearekin batera. Egun berean etengo da sorosle zerbitzua.

Kantxa urdineko teilatua berritzen ari dira, itoginen arazoa konpontzeko

2024ko udal aurrekontuetan sartuta zegoen Kiroldegiko kantxa urdineko teilatua aldatzeko proiektua, eta, lanak lizitaziora atera eta esleitu ostean, joan den uztailaren 29an hasi zituzten hura konpontzeko lanak. Udan gelditu egon ostean, lau hilabeteko epean amaituta egotea espero da. Horrela, kantxa urdinean itoginekin egon diren arazoei aurre egitea aurreikusuten da. Lanak 407.256 eurotan –BEZa kanpo– esleitu dira eta hiru enpresa batera arituko dira: Carpinteria Metalica Draga, Obras y Reformas Cema eta Impermeabilizaciones y Aisla-

mientos Termicos del Norte. Behinik behin, lanek ez dute eraginik izango kiroldegiko erabiltzaileengan.

KONPONKETAK TEILATUAN

Lanek ez diote teilatu osoari eragingo; hau da, ez da teilatu osoa aldatuko. Egundagoen estalkian beharrezkoak diren konponketak egingo dira. Teilatua konpontzeaz gain, itoginekin dauden arazoei aurre egiteko beste bi lan egingo dira: alde batetik, teilatua inpermeabilizazioa, gaur egun itoginekin dagoen arazoa saihesteko, eta, horrekin batera, ura ebaquatzeko bide berriak egingo dira.



Kantxa urdineko teilatua konpontzeko lanak. KONTZEJUPETIK

LAN GEHIGARRIAK

Aurretik aipaturiko lanei beselako lanak gehituko zaizkie, kiroldegiko erabiltzaileen eta herritarren erosotasunerako. Horietako bat izango da kiroldegiko tabernaren kanpoaldean, kantxa berdea eta kantxa urdina lotzen dituen elkargunean, teilatu bat jartzea, euria egiten duen

egunetan babespea izateko. Eta kantxa urdinerako sarbide berri bat ere egokituko da toki berean. Egundago, herritarrek tabernatik sartu behar dute kantxa urdinera, eta, sarbide berriarekin, ez da horren beharrik izango. Tabernara sartu aurretik dagoen itxitura batetik sarrera berri bat egokituko du Udalak.

Urgain herri eskolako jolasgunea eraberritzeko azken fasea falta da

2022-2023ko ikasturtean ekin zieten Urgain herri eskolako jolasgunea eraberritzeko lanei, Lur Paisajistik enpresak osatutako proiektuan oinarrituta. Lehen fasean, patio ondoko lursaila jolasgunean integratu, urak biltzeko kanalizazioa berritu –hezetasun arazoak konpontzeko– eta kirol zelai asfaltatuaren

azalera gogorra murriztu eta jolas eremu berritzailea sortu zuten. Urmael bat ere egin zen.

BIGARREN FASEA

Bigarren fasea ere bi zatitan banatzea erabaki zen, lanen dimentsioa eta kostua aintzat hartuta. Hala, 2A fasea deiturikoa ekaina eta iraila



Jolasgunea. KONTZEJUPETIK

bitartean egiten ari dira. Hain zuzen, kirolguneako obra zibila eta saneamendu sarearen eraberritzea, argiztapena eta kirol elementuen zolaketa egiten dihardute; irail bukaerarako amaitzea espero da.

Falta den zatian, 2B fasean, berdegunean egongo diren elementuak jartzea faltako litzateke. Horren proiektua datozen asteetan lizitaziora atera eta urte amaierarako lanekin hastea espero da. 2025-2026ko ikasturterako proiektu osoa gauzatu egongo da. Azken horretarako 228.482 euro gehiago beharko dira, baina proiektu osoan zehar hainbat dirulaguntza jasotzen ari da Udala.

Gainontzean, jolasgunea kanpo ikasgela bilakatzeko proiektu pedagogiko bat egiten ari da Urgain eskola.



OÑATIAR IZATEKO HAMAIKA MODU DAUDELAKO,

Elkar Hezi. denondako eskola



Urritik aurrera:
tailerrak
ate irekiak
bisita pertsonalizatuak



HARTU
BISTARAKO
HITZORDUA



GERRAGO
JAKIN
NAHI?



HAUR
ESKOLA



Onati guztiak

idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72 / 688 621 195
www.elkarhezi.eus



'Parke gorrixa' proiekturako zerbitzua kontratatu du Udalak

Etxaluze atzealdean dagoen parkea eraberritzeko asmoa aspaldikoa da. 2016. urtean *Parke gorrixa* izeneko proiektua idatzi zuten Altube-Negeruela-Otaegi arkitektoek. Sestra azpiko garajeak iragazgaiztu eta parkearen itxura berritzeko egitasmoa osatu zen. Baina lanak kontratatzekeo zailtasunak izan zituen Udalak, esleipen prozedurara aurkeztu ziren bi enpresetako batek ez zituelako baldintzak betetzen eta besteak uko egin zuelako. Ondorioz, lizitazioa bertan behera utzi zen. Garajeen jabeek ere aurreikusitako iragazgaizte lanak ez egitea erabaki zuten eta par-

kean oinarriko urbanizazio lanak egin ziren soilik: zorua berritu zen, hormigoizko bankuak egin eta altzariak eta argiteria berritu, eta txorakoak txukundu.



Parke gorrixa. KONTZEJUPETIK

PROIEKTU BERRIA

Zazpi urte geroago, *Parke gorrixa* deritzon inguruari beste buelta bat ematea erabaki du Udalak, Partaidetzako Aurrekontuetan onartutakoaren harira; hau da, 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeentzat jolas parkeetan elementu berriak jartzeko proposamenaren harira. Gaztetxoei jolastu, sozializatu eta atse-

den hartzeko aukera eman-go dieten elementu berriak jartzeko asmoa dute Etxaluzeko parkean. Instalazioa inguruarekin bateragarri egiteko, 2016ko *Parke gorrixa* proiektua berridaztea eskatu zaie Negeruela-Otaegi arkitektoei. 8 eta 14 urtekoendako jolas-elementuak ez ezik, beste adin eta profiltzako espazioa ere izan gura luke, eta horixe bera bilduko luke proiektuak.

BOZKETA PROZESUA

Partaidetzako Aurrekontuak prozesuan 303 boto jasoz zituen jolas parkeetan 8-14 urte bitartekoentzat elementuak jartzeko bosgarren aukera bozkatuenak. 200.000 euro beharko zirela kalkulatu zen; onartutako bederatzi proposametatik inbertsio handiena eskatzen duena da.

Gazte zein helduendako sexu aholkularitza eskaintzen du Xirrikak

Xirrika sexu aholkularitza herriko haur, gazte eta helduei zuzendutako zerbitzua da; sexualitatearen eta harreman afektibo-sexualen gaineko kezka eta zalantza lantzeko konfiantzazko espazio bat eskaintzen du. Aholkularitza pertsonala zein bikotekoa eta baita gurasoendako eta irakasleendako arreta ere. Gazteendako aholkularitza zerbitzua ostiral arratsaldeetan egoten da euren eskura, 17:30etik 20:00etara, gaztelekuan, eta bertan, estigmak, tabuak eta beldurrak uxatuz harreman aske eta osasuntsuak sustatu eta norbere gorputzarekiko harreman positiboa lantzen da, adinaren arabera egokituta; helduendako zerbitzua, berriz, ostegun arratsaldeetan izaten da, 17:00etatik 19:00etara, baina aurrez txanda hartuta. Eguna eta ordua zehazteko zein online kontsultak egiteko, hauxe da erabili beharreko helbidea: xirrika.onati@gmail.com.

Aholkularitza juridikoak jarraipena izango du udazkenetik aurrera

Udaleko Berdintasun sailak bideratuta, alor juridikoan emakumeek izan ditzaketen zalantza argitzeko arreta zerbitzu pertsonalizatu, egokitu eta konfidentziala izango dute eskura udazkenetik aurrera ere. Besteak beste, indarkeria matxistaren gaineko auziak, banaketa prozesuei buruzko zalantza, lan-arloko auziak eta beste eremu batzuetakoak landuko dira, saio horietan. Arreta pertsonalizatua izango da; hau da, profesionalarekin batera egingo dira saioak Oñatiko Udalak Ramon Irizar kalean duen lokalean. Horretarako, baina, aurrez eskatu beharko dute ordua interesa dutenek. Txanda hartzeko, helbide honetara bidali behar da mezua: berdintasuna@onati.eus.

Bestelako informazioa nahi duenak edo zalantzaren bat argitu nahi duenak 943-78 04 11 telefono-zenbakira deitu dezake.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelne.es

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**



- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati



Bailara enpresakoekin hitzarmena sinatu berri. KONTZEJUPETIK

Lankidetzan jardungo dute Bailara enpresa elkarteak eta Udalak

Debagoieneko garapen sozioekonomikoari lagundu eta elkarteko enpresen irudia eta lehiakortasuna sustatzea du helburu Bailara elkarteak. Irabazi asmorik gabe, haren helburu nagusiak dira Debagoiena eskualdea ezagutzera eman eta eskualdeko baliok, industria-sarea eta ezagutza teknikoak indartzea. Eskualdeko eta, konkretuki, Oñatiko garapen sozioekonomikoa bultzatzean bat egiten du elkarteak Udalarekin, eta lankidetzan aritzea erabaki dute.

ERRONKEI AURRE EGINEZ
Lankidetzan estrategia publikoak eta pribatuak zehaztu eta aplikatzen lagunduko dio Bailarak Udalari, udalerrriaren garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko.

Udalerriaren etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egiten eta udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzeko, bere esperientzia eta ezagutza eskainiko dio Udalari Bailara elkarteak.

HANDITZEKO ASMOZ
Industria arloko hamasei enpresak bat egin dute jada Bailara elkartearekin, baina hasi besterik ez da egin. Izan ere, aurkezpen ekitaldira 52 bat enpresa-ordezkarri joan ziren, eta orain, bakoitzarekin banakako bilerak egiten hasi dira, Bailara zer den azaldu eta enpresa berriak erakartzeko xedez.

Oñatiko Udalak 10.000 euroko ekarpena egin dio elkarteari.

Udalak eta Txanda dendari elkarteak lankidetzan hitzarmena sinatu dute

Lankidetzan hitzarmena sinatu du Udalak Txanda elkartearekin. 2021ean Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana eguneratu zen, tokiko merkataritza sustatu eta lehiakorrago egiteko helburuarekin. Udalak, Txanda elkarteak eta sektoreko eragileek zuzenean parte hartu zuten dokumentuaren berritzean. Plan horretan zehazten diren lan-ildoak eta ekintzak garatzen lagunduko du hitzarmenak.



Txandaren logoa. TXANDA

EKINTZA PLANA

Txanda elkarteak 2024ko ekintza plana aurkeztu dio Udalari, dirulaguntza eskararekin batera. Udazken eta neguko eta udaberri eta udako azken txanpak, Martxoaren 8a, Korrika, Margo taldearen erakusketa, *Oñatin erosiz*, *Oñati bizirik* eta Gabonetako kanpainak, sektoreko profesionalen formakuntza eta Merkataritza bulego teknikoak dira plangintzan jaso diren ekintzak.

LAGUNTZA, BIDERATUTA

Oñatiko Udalak 20.000 euroko diru-partida gorde zuen aurtengo udal aurrekontuetan Txanda dendari elkartearendako tokiko merkataritza sustatzeko. Eta hori da herriko dendarien elkartearekin izenpetuko den hitzarmenaren bideratuko den kopurua. Dirulaguntzaren erdia hasieran ordainduko da eta gainontzekoa, ekitaldiaren amaieran, urteko ekintzen memoria eta zuri-keta ekonomikoa aurkeztutakoan.

Euskaltegia eta Auzoko elkarteko zerbitzuak, Eltzia behin-behinean

Euskaltegia eta Txipistin zerbitzua Bidebarrietatik Eltzia lekualdatuko dira. Gaur egungo espazioan berogailu eta argindar instalazio arazoa dago, beraz, hainbat birgaitze egin beharko dira ikasturte honetan. Zerbitzuok obrak iraun bitartean egongo lirarteke Eltzian.

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkari erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko argazkia:
Kontzejupetik.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

Kolaboratzailea:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72



OÑATIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzieren erantzunkizunik.

Auzolanaren mirariak

Koldo Zumalde Barrena

Orain dela 35 urte egosi zen azkenekoz txondorra herri inguruan, Kilometroak jaiaren aitzakian. Orduko hartan, gaztetan ikazkin aritutakoak izan ziren protagonista. Eskapate ederra izan zen Oñatira hurreratutako jendetza ikaragarriarentzat. Sari bikaina ere hor dugu lekuko: *Ikazkinak*, Jon Arzuaga argazkilariari emandako *Goya*.

Harrezkero, pasatu al zaio inori burutik halako beste bat herrian antolatzerik? Niri ez, behintzat. Izan ere, gauza bat da esatea eta beste bat egitea. Fake bat dirudi, ez, hortxe eduki dugu ikazkintza pausora, musu-truk: eskola, etxola, axola... Lau asteko saria, gau eta egun.

Nik ez dakit zerk egin duen bat: borondateak, ilusioak, transmisio gogoak... Zorakeriak! Baina hor aritu den kuadrillari zorionak eta eskerrak eman behar gaude. Gai izan zarete beltza zuri bihurtzeko. Txikien neuronetan geratuko da betiko zuen ahalegin neurrigabea. Katea ez da eten.

Jarrai, arren, horrelako lurrinekin herria saritzen.

Musika, herritik eta herrixantzat

Mikel Garai eta Aitor Urizar, Antixena
Gaztetxeako asanbladakideak

Pasa den ekainaren 1ean bukatu zen Oñati Bizirik 5. edizioa, Iruñeko Aitzinan eskainitako kontzertuekin. Antixena Gaztetxeak autoekoitzi eta autofinantzatutako disko honek kate-begi ugari izan ditu: 13 musika-talde, 3 bakarlari, 2 DJ eta komiko bat; bi mahai-inguru, bazkari bat eta kamiseta andana; herriko aurkezpen eguna, eta Euskal Herrian barnako bira. Eta, hau guztia posible izateko, lanean jardun duten guztiak: teknikariak, sukaldariak, barrako txandak egin dituztenak, kamiseta eta diskoak saltzen egon direnak, musikari, diseinatzaile eta artistak... Bihotzez, bost mila esker!

Ez da bide motza izan, 2023ko jaien ondorenean hasi eta duela hilabete amaitu baitugu, jende askoren borondatezko lan militanteari esker. Bederatzi hile luze hauetan konbentzimenduz jardun dugu, autogestioa oinarri hartuta, herriko musika hauspotu, bateratu eta izaera kolektiboa emango dion proiektuari forma ematen.

Eta, azkenean, forma biribila hartu du: disko forma. Talde hasiberrientzako bultzada da CD hau, askorentzat oholtzara igotzeko lehen aitzakia baita, bai eta grabaketa-prozesua gertutik ezagutzekoa ere. Bestalde, herriko historia musikala aberastuko duen altxorra ere bada, talde batzuk Oñati Bizirikeko grabaketetan soilik agertu direlako, eta gure herriko musikaren bilakaera islatzen duelako.

Duela ia hogeit urte hasi zen ibilbidea, 2006an Kasablankako gaztetxean grabatutako diskoarekin, eta martxa haren notak ez dira isildu oraindik. Musikak jotzen duen bitartean, guk dantzan jarraituko dugu, kultura, gaztetxea eta Oñati bizirik mantentzen.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

55 urte gogoan

Amaiur Mendi eta Jon Tomé, Oñatiko Sorturen izenean

1969ko uda zen. Miren Zumalde oñatiarra eta bere bikote Antton Guridi bergararra Burgosko espetxera joan ziren bertan preso zegoen Benito Zumalde (Mirenen anaia) bisitatzen. Espetxetik bueltan, zoritxarreko trafiko istripua izan zuten. Biak hil ziren ezbeharraren ondorioz.

Altxamendu frankistaren garaipenaren ostean, oso ohikoa zen Espainiako kartzeletara bidaia luzeak egin behar izatea senideak bisitatu ahal izateko. Izan ere, ehunka izan ziren etxetik urrun giltzaperatutako euskal preso politikoak.

Bi hamarkadaren ostean, 1989an, Felipe Gonzalezen gobernuak EAJren laguntzarekin ezarritako dispertsioa eta urruntzea preso senideentzako zigor erantsia izan ziren. 30 urte baino gehiagoz irain, umiliazio, tratu txar eta heriotzez jositako bidaiak egitera kondenatu zituzten.

Gure herrian gertutik ezagutzen dugu errealitate hori. 2007an dispertsioak Natividad Junko herrikidearen bizitzarekin amaitu zuen. Bere alabaren mutil-laguna ikustera zihoala, Terueleko espetxera, auto istripu baten ondorioz hil zen.

Euskal gizartearen ezaugarri nabarmenetako bat da euskal preso politikoekiko elkartasuna. Tamalez, tragediari lotutako elkartasuna.

55 urte geroago, gogoan ditugu Miren eta Antton, bai eta salbuespeneko egoera ankerraren biktima izan zen Natividad Junko. Dispertsioak eragindako gainontzeko 15 hildakoak ere ez ditugu ahaztuko: Rosa eta Arantza Amezaga, Ruben Garate, Iñaki Balerdi, Argi Iturralde, Pili Arsuaga, Fontso Isasi, Sara Fernández, Iñaki Saez, Asier Heriz, Karmele Solaguren, Mari Carmen Salbide, Jose Mari Maruri, Antxoni Fernández eta Leo Esteban. Biktima hauen aitortzak eta erreparazioak ekarpen handia egingo lioke bizikidetzaren demokratikoari.



Maria Formoso, lore-sortarekin.



M. Angeles Erle, senitartekoekin eta udal ordezkariekin.

Maria Formosok, Maria Angeles Erlek eta Basili Kortabarriak, 100 urte

Mende bat jaio zirenetik. Zenbat bizipen, sasoi, gertakari bizi izan dituzten berriki 100 urte bete dituzten hiru emakumeek. Ekainetik abuztura bitartean bete dituzte urteak. Maria Formoso Vazquezek ekainaren 15ean; Maria Angeles Erle Lizarralde abuztuaren 1ean; eta Basili Kortabarria Kortabarriak abuztuaren 25ean.

Horren egun seinalatuan, senitartekoei lagunduta, Udalaren errekonozimendu eta omenaldia jaso zuten hirurek. Lore-sorta bana eta zorion mordoa, urtebetetze berezia ospatzeko.



Basili Kortabarria, familiakoekin eta udal ordezkariekin.

"Araozko ostatuan beste era batera lan egiten da"

GERMAN MIRASSOU

ARAOZKO OSTATUKO KUDEATZAILEA

Oñatiko Udalak establezimenduaren ustiaketa, kudeaketa eta mantentzea ostalaritzan ibilbide luzea duen eta gaur egun Eltziaiko taberna ere kudeatzen duen German Mirassouri (Berazategi, Argentina, 1978) esleitu ostean, Araozko ostatuak ekainaren erdialdera ekin zion etapa berriari. Hasiera batean, lau urterako hartu du bere gain Mirassouk ostatuaren kudeaketa, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.

Udaren atarian, ekainaren 15ean zabaldu zituen ateak berriz ere Araozko ostatuak; zelakoak izan dira lehen hilabeteak?

Jedearen erantzuna oso ona izan da. Lan asko egin dugu; apartamentuetan ere egon da mugimendua, baina tabernan ibili da, batez ere, jendea. Bezeroen aldetik, denetarik izan dugu. Turista mordoa ibili da; Aitzulo modan dago, eta hori igarri egin da: frantziarrak, ingelesak, herbeheretarrak... Era berean, ostiraletan pintxo-potea egiten dugu eta auzotar asko erakartzen ditu horrek. Aurrekoek emandako erreferentziak nituen eta ez nuen espero horrenbeste jende ibiltzea; alde horretatik, pozik nago.

Zerk animatu zintuen Araozko ostatura hartzera?

Kasualitatea izan zen, neurri batean. Eltzian nengoe-la, norbaitek aipatu zidan ostatuaren kudeaketa lehia-ketara irtengo zela; aukera ona iruditu zitzaidan eta izena ematea erabaki nuen. Egia esan behar badut, ostatura ezagutu barik eman nuen izena. Proiektu nahiko polita aurkeztu nuen eta oso pozik nago esleipena lortu izanaz, tokia zoragarria delako eta ingurua, ezin hobea. Apartamentuena niretzat erronka handia da, horretan ez dudalako esperientziarik, baina ez zait hain zaila egiten ari.

Oñatin, herriguneko tabernetan, baduzu eskarmen-tua; pentsatzekoa da, baina, Araozko ostatura eroatea ezberdina izango dela. Alde batetik ez eta beste alde batetik bai. Ostalaritza ostalaritza da eta toki ia guztietan egin beharreko lana berbera izaten da; jendearen gustuak eta ohiturak ere antzerakoak izaten dira. Baina konturatu naiz Araozko ostatuan beste era batera lan egi-

"Lan asko egin dugu udan; apartamentuetan egon da mugimendua eta jendea, batez ere, tabernan ibili da"

ten dela. Izan ere, akaso inguruagatik-eta, hona etortzen direnak beste lasaitasun batekin etortzen dira, pozik eta umore onarekin; bai auzotarrak eta baita turistak ere. Eta hori zerbait positiboa gisa ikusten dut nik.

Tabernari eta jatetxeari dagokionez, zein da eskaintza?

Plater konbinatuekin, errazioekin, entsaladekin... hasi gara, eta, horretaz gain, menu bereziak eskaintzen ditugu, aurretik enkargatuz gero: arraina, haragia... Hori uda partean, topera hasi ginelako eta gauza gehiago sartzeko aukerarik izan ez dugulako. Negu partean ikusiko dugu zein mugimendu dagoen eta zer eskainiko dugun; baliteke karta aldatzea

edo gauza berriak sartzea. Ordulegiari dagokionez, eguenetik domekara egongo da zabalik ostatura, 10:30etik gauean itxi arte. Uda sasoi pasatutakoan, baina, egunetan 18:30etik aurrera zabalduko dugu eta gainerako egunetan, udan bezala, egun osoan egongo da irekita. Bazkaltzera edo afaltzera etortzeko ez da derrigorrez erreserbarik egin behar, baina gomendagarria da; izan ere, zorionez, orain arte beteta izan dugu. Tokia ez da oso handia, hogeit hamar pertsona inguru sartzen dira, eta eguraldi ona eginez gero berehala betetzen da.

Eta apartamentuei dagokienez?

Apartamentuen kudeaketa ez dut horrenbesteko eskarmenturik, eta ikasten nabil. Alde horretatik, Nekaturren bidez gauza pila bat egiten dira; adibidez, erreserbak bideratu. Horrek asko errazten ditu gauzak. Dena den, zuzenean ostatura deituta ere hatzen ditugu erreserbak. Urte osoan egongo dira zabalik. Udan jendeak hartu du ostatura apartamentuetan, baina, batez ere, tabernarekin eta jatetxearekin nahiko lanpetuta ibili naiz, eta



Araozko ostatura, kanpotik. KONTZEJUPETIK



German Mirassou, Araozko ostatuko tabernan. KONTZEJUPETIK

asmoa da datozen hilabe-
teetan beste bultzada bat
ematea.

Zein lantalde egongo da Araozko ostatuan?

Lau pertsona ibiliko gara ber-
tan: sukaldaria, bi langile eta
baita ni neu ere.

Zelako harrera egin dizute auzotarrek?

Oso ondo hartu naute. Hasi
nintzenezan bilera bat egin
nuen eurekin, nituen as-
moak eta azaltzeko, eta orain
ere harremanetan gaude, di-
tudan ideiak jakinarazi edo
proposamenak egiteko. Au-
rreko batean, esaterako, DJ
batekin saioa egin genuen
ostatuan; horrelakoak auzo-
tarrekin kontsultatzen ditut
lehenengo. Haien partetik
malgutasun handia igarri dut
gauzak antolatzeko orduan
baita laguntzeko prestuta-
suna ere.

**Aitzulo, Arrikruzeko ko-
bak, ingurune naturala...
Nahikoa dira horiek jendea**

erakartzeko ala baduzu os- tatu dinamizatzeko bes- telako asmorik?

Aipatutako horiek, oraingoz,
nahikoa izan dira, baina bad-
dut bestelako ekintza batzuk
martxan jartzeko asmoa. Ekintza horietako batzuk kul-
turekin lotutakoak izango
dira eta beste batzuk, kar-
tarekin lotutakoak. Argenti-
narra izanda, badut parrilla-
dak egiteko ohitura, eta ho-
ri eskaintzea ere gustatuko
litzaidake, beste puntutxo
bat emateko.

Udan berez egoten da jen- de-mugimendua, baina zein aurreikuspen dituzu udazkenera eta negura begira?

**"Auzotarren aldetik
malgutasun handia
igarri dut gauzak
antolatzeko orduan,
baita laguntzeko
prestutasuna ere"**

Udazkenerako aurreikuspen
onak ditut, perretxiko-zaleak
eta ehiztariak direla eta ibi-
liko delako jendea. Gainera,
auzotarrak ere dezente etor-
tzen dira eta udazkenean ere
etorriko direla pentsatzen
dut. Horrekin lotuta, Arao-
tzek badu berezitasun bat:
bertan ez da jende askorik
bizi, baina asko dira auzoan
duten baserrira egunero etor-
tzen direnak; horrek sortzen
du mugimendua. Establezi-
mendu baten martxa zein
den eta ondo funtzionatzen
duen ikusteko urte osoko zi-
kloari begiratu behar zaio.

Zein asmo duzu Araozko ostatu eta bertako eskain- tza ezagutzera emateko?

**"Establezimendu
baten martxa zein
den ikusteko urte
osoko zikloari
begiratu behar
zaio"**

Orain arte ezin izan dut as-
korik egin, udan ostatuan ba-
karririk ez, Eltzian ere lan as-
ko izan dudalako. Neguan bi-
deratu gura dut horra den-
bora gehiago: sare sozialak
indartu, aurretik ere baze-
goen webgunea eguneratu...

Oñatira heldu zinenetik egindako bidea ikusita, ar- gi dago ostalaritza gustu- ko duzula.

Duela hemeretzi urte heldu
nintzen Oñatira, 2005eko
maiatzean, eta ia beti osta-
laritzaren arloan egin izan
dut lan: lehen Zurrust zen
tabernan hasi nintzen lehe-
nengo; gero, Legazpin da-
goen Elizondon ibili nintzen;
2013an Oñati taberna hartu
nuen; hutsetik hasita Helmu-
ga martxan jarri genuen on-
doren... laz hartu nuen El-
tziaren ardura, eta orduan
Ulman nuen lanpostuari uko
egin nion. Alde onak eta txar-
rak ditu, baina gustura ibil-
tzen naiz ostalaritzan: jen-
dearekin harremana, kudea-
keta eta abar.



ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

OÑATIKO UDALEKO

Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA! <<

Azkenaldiko urte gogorrak atzean utzita, eta zorionez erdi ahaztuta, haur eta gaztetxoek topera disfrutatzeko uda izan da aurtengoa. Gauzak horrela, besteak beste, Udaleku Irekiak eta Arte Udalekuak antolatu ditugu. Horretaz gain, Ludotekako eta Gaztelekuko zerbitzuetan hainbat irteera eraman ditugu aurrera, eta guztiok –haur

zein hezitzaileok– topera disfrutatzeko aukera izan dugu! Horren erakusle dira ondorengo argazkiak.

Mila esker urtero gure departamentutik eskainitako zerbitzuetan konfiantza duzuen guztioi! Baita era batera edo bestera parte hartu eta lagundu diguzuenoi ere! Elkarrekin primeran pasatu dugu!





Oñati Abesbatzako kideak Madrilén. OÑATI ABESBATZA

Kide berriekin eta indarberrituta, Oñati Abesbatza kontzertuz blai

> Ekainean, Madrilgo Euskal Etxean, 'Kantuz' zikloko amaiera kontzertua eman zuten

Indartsu da Oñati Abesbatza, joan den ikasturtean abeslari berriak batzeko prozesuak emaitza onak utzita. Taldea indartuta, kide berriekin eta motibazio handiz, kontzertuz kontzertu dabil oraingo urtean. Indarberritze horren erakusle dira bereziki ekainean eta uztailean zehar izan dituzten kontzertuak. Ekainaren 2an Corpus eguneko mezan parrokiako abesbatzekin batera kantatu ostean, Jesusen Bihotza jaiarekin lotuta Agustindarren elizan eta Koixkar auzoan izandako mezetan protagonismo

berezia izan zuen abesbatzak.

MADRILERA BIDAIA

Madrilera bidaiatu zuten ekainaren erdian. Han, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Euskal Etxeko Orfeoia antolatutako *Kantuz* zikloaren azken kontzertua eman zuten. Aurrez, maiatzean, madrildarrak Oñatira etorri ziren, Xabier Ugarte taldekide ohia Bidaurretako monasterioan egin zitzaion omenaldian parte hartzeko. Euskal Etxekoekin izandako hartu-eman horretarako prestatutako

programa eskaini zuten Madrilgo kontzertuan, eta bukatzeko, Esteban Urzelai zuzenduta eta kontzertuari bukaera borobila emateko, bi abesbatzek elkarrekin abestu zuten. Ez da hor bukatzen Oñati Abesbatzaren ekaineko emanaldi sorta,

2026an 60 urte beteko ditu Oñati Abesbatzak eta laister hasiko dira urteurreneko ekintzak prestatzen

Aita Menni ospitalean –bertako koruarekin batera– eta San Martin egoitzan kontzertu bana eman baitzuten. Udan San Lorentzon, Urrexolan eta Agustindarretan ere egin dituzte saioak.

60. URTEURRENARI SO

Sasoi onean da abesbatza eta indartuta helduko dio 2026an ospatuko duen 60. urteurrenari. Gaur egun, Gabonetako emanaldiei begira jarriak dira, eta ez hori bakarrik, urteurren berezia ospatzeko egingo dituzten ekintzak ere izango baitituzte berhala jomugan.

**Oñabike**

oñabike.com

Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



Gaztetxoan taldeko ikasleak antzezlanak aurkezten Santa Ana antzokian. DAP

Herrian egonkortzen

2020an sortu zuten DAP, eta geroztik "aurrerapauso handiak" ematen joan da elkarteak. Urte hartan, bost lan-lerro abiarazteko asmoa iragarri zuten, eta, Castañedak azaldu duenez, dagoeneko guztiak daude martxan.

Proiektuak

Karoi antzerki jaialdia izan zen taldearen lehen proiektua. Antzuolan egin zuten lehen edizioa, "modu xumean", baina bailarako herri guztietara zabaldu da. Zenbait sormen-beka eman izan dituzte eta, gainera, antzerki amateur lehiaketa antolatzen dute.

badu lehen eskolara etor daitezke". "Lehen saio horretara joateko interesa aurrez adieraztea komeni da, batez ere irakasleak jende berria izango dela jakin dezan", zehaztu du DAPeko koordinatzaileak.

Beste ikasturte batez oihala altxatzeko prest da DAP

Debagoieneko Antzerki Plataformako kideek ontzat jo dute aurreko ikasturtea, eta aurten ere bide beretik jarraitzea espero dute. Kurtso berriko eskoletarako matrikulazio epea zabalik dago, eta ate irekiak ere izango dituzte

Ikasturte berriari forma ematen hasi da dagoeneko Debagoieneko Antzerki Plataforma. Aurreko ikasturtea "oso ondo" joan zela adierazi du Amaia Castañeda koordinatzaileak, eta aurten ere bide beretik jarraitu nahi dute: "Eskola jarraituetan, lehen aldiz, umeen taldea bitan banatu zen: umeak, batetik, eta gaztetxoak, bestetik. Helduen talde nahiko handi bat ere badago, emakumez osatua. Aurtengo helburua lau talde osatzea izango da, eta haiekin lanean jardutea".


MATRIKULAZIOA

Irazanekin elkarlanean antolatzen dituzten eskola jarraituetarako matrikulazio epea zabalik dago. Izen ematea www.dap.eus-en egin daiteke. Helduen taldea as-

Herriko jaien ostean hasiko dira eskola jarraituak ematen, eta lehenengoak ate ireki funtzioa ere beteko du

telehenetan batuko da, 19:30etik 21:30era. Astearteetan elkartuko dira gairontzeko hirurak: haurrak 17:00etatik 18:15era elkartuko dira; gazteak, 18:30etik 19:30era; eta gaztetxoak, 19:30etik 20:45era. Haurren, gazteen eta gaztetxoan eskoletan 25 euroko prezioa izango dute eta helduen eskoletan, 35-40 euro artekoa.

Castañedak adierazi duenez, eskolak jaien ostean hasiko dira, eta lehenak ate ireki funtzioa ere beteko du: "Norbaitek proba egin nahi



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎️ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉️ OINATI@COINBROKER.EUS

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan dira Maider Arregi eta Aitor Tatiegi

Urriaren 5ean izango da bi bertsolarien kanporaketa, Azpeitiko Soreasu antzokian

Sailkapen fasea amaituta, irailaren 14an abiatuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Izena eman zuten lau oñatiarretatik bi pasatu dira fasez: Maider Arregi eta Aitor Tatiegi. Kasualitatez, elkarrekin kantatuko dute hirugarrenez bi bertsolariek, sailkapeneko bi saioetan ere horrela egokitu baitzitzaizen. Urriaren 5ean izango da saioa, Azpeitiko Soreasu antzokian, 17:00etan hasita.



Arregi eta Tatiegi Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseko saioetan. BERTSOZALE ELKARTEA

URDURITASUNIK GABE

Momentuz lasai daudela adierazi dute bi bertsolariek. "Oraindik ez nago oso urduri. Gure saioa guztietan azkenena denez ez nago erabat mentalizatuta", adierazi du Arregik. "Gerturatzen doan heinean urduritasuna igotzen joango dela suposatzen dut", gaineratu du Tatiegik.

Biek saio berean kantatzeak ere lasaitasun puntu bat ematen diola adierazi du Tatiegik: "Pozik nago Maiderrekin kantatzearekin; saio aurretik egoteko zein kanturako oso pertsona egokia iruditzen zait. Ondokoa ezaguna izateak asko laguntzen dit". Azken puntu hori baieztatu du Arregik ere: "Lasaia-go joaten naiz horrela. Egia da lehian ez zarela horrenbeste sartzen, baina nahia-go dut hala izatea".

SAILKAPENA

Gipuzkoa Bertsotan izeneko sailkapen fasean emaitza onak lortu zituzten bi bertsolariek. B multzoko azken sailkapenean lehen postuan

igaro da Arregi. Tatiegi, berriz, laugarren postuan igaror da. "Bi saioetan Maider izan zen lehena eta ni bigarrena. Hari ere esan nion sinatuko nituzkeela emaitza horiek finaleko buruz burukora arte", dio Tatiegik, barre artean. Pozik geratu zen sailkapen fasean emandakoarekin, baina onartzen du "beste saltotxo bat" eman beharko duela. Arregi ere pozik azaldu da: "Entrenamenduek fruituak ematen dituztela ikustea benetan pozgarria da. Aurrera jarraitzeko gogoia ematen du".

MAIDER ARREGI
BERTSOLARIA

"Entrenamenduek fruituak ematen dituztela ikustea benetan pozgarria da; aurrera jarraitzeko gogoia ematen du"

DATA TXARRA

Urriaren 5a ez da egun aproposena bi oñatiarrek horrelako saio bat izateko. Arrazoiak? Aurten Herri Eguna da eta horretan ospatuko dela. Umorez hartu dute bi bertsolariek; ostean ospatzeko zein penak arintzeko aukera ona dela argudiatu dute.

Umoretik aldentuta, biak jakitun dira datak zailtasunak eragingo dituela herrikideak saiora eramateko orduan, "horrek berarekin darrakaren guztiarekin". Hala ere, "mentalizatze" garaiz abiatu zieten.

AITOR TATIEGI
BERTSOLARIA

Bi saioetan Maider izan zen lehena eta ni bigarrena; sinatuko nituzke emaitza horiek finaleko buruz burukora arte"

ENTRENAMENDUAK

Bertso eskolara itzuliak dira dagoeneko bi bertsolariak. Arregik azaldu duenez, uztailen atsedenaldia hartu zuen, eta abuztuan itzuli zen eskoletara. Hala ere, kurtso hasieran beste kontu batzuk suertatu zaizkiolako ez dago "horren kontzentratua", baina segurua dago "obsesio puntua" itzuliko zaiola. Tatiegik udan "bertso saio ugari" izateko "zortea" izan du, eta hori eskola baino "entrenamendu hobetzat" du. Aipamen berezia egiten dio Urko Arregi bertsolariari, txapelketara pasatu ez den arren entrenamenduetan bidelagun garrantzitsu du eta.

ILUSIO BERA

Aurrera begira, biek ilusio bera nabarmentzen dute: Bertsolari Txapelketa Nagusira pasatzea. Horretarako, gutxienez, finalerdietara iritsi beharko dute, baina jakitun dira "zaila dela" eta helburua lortzeko "lan egiteko beharra" izango dutela.

Udalaren egutegiko argazkiak, uraren eta beste energia iturri batzuen bueltan

- > Lehiaketan parte hartu nahi duenak urriaren 18rako aurkeztu behar ditu argazkiak
- > Azaleko argazkiak 150 euroko saria izango du eta hilabete bakoitzekoak, 75ekoa

Ura eta beste energia iturri batzuk izango da 2025eko Udalaren egutegiko gaia. Horri lotutako argazkiek ilustratuko dute 2025eko egutegia eta argazki horiek aukeratzeko lehiaketa antolatu dute aurten ere: 150 euroko saria izango du azaleko argazkiak eta 75 eurokoa hilabete bakoitzean ikusiko denak.

Honako baldintza hauek bete beharko dira lehiaketan parte hartzeko: Oñatin erroldatutako edonork har dezake parte, adin mugarik gabe; ezinbestekoa da argazkiak Oñatin egindakoak izatea edo irudiaren kokalekua Oñati dela argi geratzea;

argazki zaharrak edo berriak izan daitezke, zuri-beltzean edo koloretan; argazkiek originalak izan beharko dute,

aldez aurretik argitaratu gabeak edo beste lehiaketaren baten saritu gabeak; partaide bakoitzak gehienez hiru



Lehiaketa iragartzeko agerraldia. KONTZEJUPETIK

argazki aurkeztu ahal izanongo ditu; argazki etzanak edo horizontalak hobetsiko dira; eta irabazleek 300 PPI tamainan bidali beharko dute saritutako argazkia –argazki zaharren kasuan paperezkoa aurkeztu ahaliko da–. Argazkiak urriaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira, HAZ bulegoan edo euskera@onati.eus helbide elektronikora bidalita.

ESALDIA, UDALAREN ESKU

Beste urte batzuetako egutegietako argazkietarako gaiak bestelakoak izan dira, izan herriko eraikinak edota auzoak edo kirola, adibidez, eta Ilunpetan argazki taldeko kideekin elkarlanean ere antolatu izan da lehiaketa. Aurten, Udalak oso presente duen energiaren gaia bistarazi nahi izan da argazkietan. Aurten ere, Udaleko Euskara Saila arduratuko da.

Film labur lehiaketa antolatu dute, gazteen artean euskara sustatzeko

Gazteen artean euskara eta hitanoa sustatzeko film labur lehiaketa antolatu du Udalak. Mundu digitaleko eredu edo *influencer* gehienak gazte-erazkoak direla kontuan hartuta eta Oñatin film laburrekin dagoen kultura berezia ahaztu gabe, Udalak gonbidapena egin nahi die gazteei, ondo baino hobeto kontrolatzen dituzten baliabide teknologikoekin film labur bat egin dezaten.

Gainera, herriko ikastetxeetan hika lantzen ari direla aprobetxatuta, Udalak baldintza moduan jarri du film laburrak, euskaraz izateaz gain, hitanoan elkarrizketaren bat jaso beharko duela.

ADITUENGANDIK IKASI

Saio didaktiko bat egingo dute urriaren 12an, goizez, gaiaren araberrako mahaietan banatuta. Askotariko adituak gonbidatuko ditu Udalak, gazteek bertatik bertara ikasi dezaten; honako ikasgai hauek lantzea aurreikusiten da: gidoigintza –gidoia, elkarrizketen lanketa eta hitanoa–, produkzioa –atreztoa, espazioak...–, kamera –argia, soinua, planoak...–, edizioa, antzezpena, bikoizketak eta *off-eko* ahotsak. Izena eman ahaliko da gaztelekuan, irailaren 16tik 22ra. Bideoak aurkezteko epea urriaren 12an hasiko da, eta urriaren 27an bukatu.

Umeei zuzendutako irakurketa kluba sortu nahi dute liburutegian

Liburutegiak umeendako irakurketa kluba sortu nahi du ikasturte honetan, ondo pasatzeko eta irakurritako liburuak lagunekin partekatzeke. Mota guztietako liburuak irakurri eta aztertuko dituzte izena ematen dutenen artean: ipuinak, komikiak, poemak, aho-korapiloak... Saio ludikoak izango dira, entrenigarriak eta aberasgarriak.

Peru Magdalena idazle eta margolari durangarra izango da gidaria, hilean astelehen batez, 17:00etatik 18:15era. Saioak honako egun hauetarako aurreikusi dira: urriak 21, azaroak 11, abenduak 2, urtarrilak 20, otsailak 17 eta martxoak 10. Izena eman behar da irailean zehar; liburutegian, Whatsappez (688 73 28 26), telefonoz (943 71

61 11) edo posta elektronikoz (liburutegia@onati.eus).

HELDUEN KLUBAK 13 URTE

Liburutegiak 13 urte daramatza helduen irakurketa kluba eskaintzen eta zazpi urte idazketa tailerra bultzatzen. Oñatiar askorentzat oharkabean pasatu diren saioak izan arren, parte hartzeko dei egin dute; bi aukera daude: ikasturte osorako irakurketa taldean edo idazketa tailerrean izena ematea irailaren 20rako; edo idazlea edo ilustratzailea gonbidatzen den saio irekietara joatea. Aldez aurretik irakurketa klubean parte hartu dutenek aurten ere izena eman beharko dutela azpimarratu dute. Beste edozein zalantza argitzeko, berriaz: 943 71 61 11.

Burrunda faktoriak Hubris eta Rodeo taldeekin abiatuko du ikasturte berria, irailaren 22an

- > Burrunda faktoriakoek bigarren edizioari ekingo diote, lehen aldiak emandakoarekin pozik
- > Bonuak eta zozketak izango dira aurten ere

Ikasturte berriarekin batera lanean diharduen beste eragile bat da Antixena gaztearen bueltan mugitzen den Burrunda faktoria. Bigarren ikasturtea dute aurten goa eta diote gogotsu dau dela kultura arloko ekitaldiak antolatzen segitzeko.

Oraingoan, irailaren 22rako antolatutako kontzertuaren berri eman dute. Bi talde gonbidatu dituzte 18:00etan hasiko den kontzerturako: Suitzako Hubris eta Zestoako Rodeo. Hubris talde instrumentala da, post-rock doinuak lantzen ditue-

na, eta European zehar egiten ari den bira baliatu dute Burrunda faktoriakoek proposamen ezberdin hori Antixenera eramateko; suitzarrak Galiziatik etorriko dira zuzenean Oñatira. Talde atzerriarrarekin batera, Zestoako Rodeo taldeak rock eta stoner doinuak landuko ditu gaztetxeko oholtzan.

HILAREN 22KOAN, AFARIA

Kontzertu berezia izango da irailaren 22koa; izan ere, bi taldeen kontzertuen ostean Antixenean bertan afaltzeko aukera eskainiko dute anto-



Astelehen Goizak Antixenean, urtarrilaren 20an. KONTZEJUPETIK

latzaileek; betiere, eguraldiak laguntzen badu. Burrundakoek aurreratu dute, bestalde, urritik abendura arteko ekintzen berri herriko jaien ostean emango dutela. Zuzeneko kontzertuak izango dira protagonista, baina asmoa da beste kultura ekintza batzuk ere eskaintzea.

POZIK LEHEN URTEAREKIN

Lehen ikasturteak eman duenarekin pozik daude, antolatutako ekintzek oro har erantzun ona jaso dutelako. Ikasturtea bi alditan banatuko dute aurten ere, urritik

abendura eta urtarriletik apirilera. Eta, iazkoari eutsiz, bigarren ikasturte honetan ere bonua aterako dute; hau da, aldezturik oraindik zehaztu ez duten diru kopuru bat ordainduta bonua erosten duenak kontzertu guztietarako sarrera bermatuta izango du. Ezin da ahaztu edukiera mugatua duela Antixena gaztetxeak.

Horrez gain, aurreratu dute hirugarren fanzinearekin lanean ari direlako dagoneko, eta taldeen materiala zozketatzen jarraitzeko asmoa ere badutela.

Oñatzek 11 talde gonbidatu ditu irailaren 15ean egingo den Haurren Egunerako

Irailaren 15ean egingo da 52. Haurren Eguna. Oñatz dantza taldeak beste hamaika talde gonbidatu ditu: Urrats (Soraluze), Ibai Egia (Lizarran), Irrintzi (Zumarraga), Jalgi (Zarautz), Elai Alai (Gernika), Lurra (Urretxu), Oinarin (Antzuola), Txikitxu (Arrasate), Leizarra (Aretxabaleta), Berriztasuna (Portugalete)

eta Lore Gazteak (Arrasate). Egun berezia da Oñatzenzat, ezin da eta ahaztu Haurren Egunaren bueltan sortu zela dantza taldea bera.

EURIA BADA, ZUBIKOAN

Dantza taldeei 10:15ean egingo diete harrera, Otadui zuhaitzian, eta gero hamaitzako egingo dute plaza-



Oñatz taldekoak, iazko Haur Dantzarien Egunean. KONTZEJUPETIK

ko pilotalekuan. 11:45ean Alkate Txikiaren ondoetorria eta agurra egingo dituzte eta 12:00etan hasiko dira dantzan kalez kale. Bazkariaren

ostean Etxaluzetik plazara jaitsiko dira kalejiran, bertan alardea egiteko (17:15). Eurria eginez gero, ekitaldiak Zubikoan egingo dira.

Esne Beltzaren kontzertua eta Erraldoien Eguna, jaietan egongo diren ekintzetako bi

- > Xabi Solanoren taldeak plazan joko du, zuzenean, Herri Egunaren bezperan, urriaren 4an, 23:00etan
- > Terrassako, Oñatiko eta Bergarako erraldoien festa irailaren 21ean izango da, sorpresa barne

Badatoz San Migel eta Errosario jaiak. Haurren zein nagusien danborradetako parte-hartzaileak entseguetan ari dira eta egitarauak orraztea baino ez da falta.

Esaterako, Terrassako Gegants Bojos erraldoi taldeak jaien bezperan egingo du bisita Oñatira. Ekainean izan ziren herriko erraldoiak han, eta hangoak datoz orain hona. Irailaren 21ean izango da Erraldoien Eguna. Kanpantxo kultura taldeak antolatuta, Kanpantxotik abiatuko dira, 11:30an, Oñatiko konpartsa, konpartsa txikia, Atzeko kaleko konpartsa, Bergarako Erraldoi Taldea eta Terrassako taldea. Kataluniarrek, gainera, aurreratu dute sorpresa bat dutela prestatuta gauerako.

ZUZENeko MUSIKAK

Zuzeneko musika ekitaldiak ere jasoko ditu egitarauak. Herri Egunaren bezperan, adibidez, urriaren 4an, Esne Bel-

tza taldeak joko du, zuzenean, herriko plazan. Ez da, baina, joko duen talde bakarra, ezta musika emaldiaren espazio bakarra ere. Ohikoak diren beste guneetan ere egongo dira kontzertuak irailaren 28tik urriaren 7ra bitartean; San Migel egunean kasu. Irailaren 17an emango da egitarau osoaren berri.

PIKTOGRAMAK


Datozen egunetan bidaliko dute jaien egitaraua inprentara eta etxez etxe banatuko dute gero. Aurten, gainera, badu berrikuntza bat egitarauak: piktograma bidez ere jasoko du informazioa, ohiko moduz gain. Piktograma edo irudi bisualekin, ekitaldien berri modu eraginkorrean komunikatzea da asmoa, oztopo linguistikoak gaintzen eta ulermena errazten laguntzeko.



Etorriko diren erraldoietako hiru. GEGANTS BOJOS

Eraso sexisten arretarako telefonoa

Eraso sexisten arretarako eta informaziorako telefono zerbitzua jarriko du martxan Udalak herriko jai nagusietan ere. Erasosetaren bat jasan, informazioa edo aholkularitza behar, nola lagundu jakin ez edo eraso baten berri eman nahi izanez gero, hauxe da telefono-zenbakia: 688 60 20 89.



Egitarauak badu azala

Herritarren botoen bidez erabaki da aurten ere jaien egitarauko azala. Bost lan aurkeztu ziren eta Izar Mendiola Igartuak egindakoak jaso zituen boto gehien.



 carpintería
GARIBAI
 aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibal 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibal@garibal-aroztegia.com
www.garibal-aroztegia.com



smk
 san miguel kooperatiba
 943 781 217
 kale Barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Uda ostean izerdia botatzeko aukera zabala

Zubikoako kiroldegian prest dituzte igeriketa ikastaroak eta uretako jarduerak, baita fitness eskaintza ere

Oporren ondoren kirol errutinak berreskuratzeko ueña heldzen da, eta horretarako, Zubikoa kiroldegian eskaintza zabala dago, bakoitzak egokien duena aukeratu dezan. Aukeraketa errazteko asmoz, ate irekiak egin dituzte egunotan.

IGERIKETAKO EKINTZAK

Fitness eskaintzarekin batera gertu dira igeriketako ikastaro eta ekintzak. Helduendako igeriketa saioak izango dira asteleheneretik ostegunera, hainbat mailatan dauden igerilariendako egokiturikoak. Horrekin batera, aquagym, matro igeriketa eta ur fitnessa eskaitzen dira *zubikoakiroldegia.oñati.eus* helbidean.

KALISTENIA IKASTAROA

Irailako zapatuetarako kalistenia ikastaroa antolatu da San Martingo kalistenia parkean. Lehenengo saioa irailaren 7an egin zuten, eta hurrengoak 14an eta 21ean (09:30) izango dira. Zubikoa kiroldegiko harreran eman daiteke izena.

Fitness ekintzen eskaintza eta ordutegiak

Astean egun bat:

- **Body Balance:** astelehena (18:15), asteazkena (18:15, 20:15), Aldatz aretoan.
- **Cardio Kick:** astelehena (20:15), Aldatz aretoan.
- **Body Pump:** astelehena (17:15), asteartea (19:15, 20:15), asteazkena (08:15, 17:15, 19:15), osteguna (19:15), ostirala (08:15, 17:15, 18:15), Aldatz aretoan.
- **Body Pump 60+:** asteartea (10:15), ostirala (10:15), Aldatz aretoan.
- **Hatha Yoga:** asteartea (10:15), Ziburu aretoan; asteazkena (18:15), Gerriko aretoan.
- **Hiit:** astelehena (20:15), Ziburu aretoan.
- **Hypopresiboak:** asteartea (09:15), Aldatz aretoan; asteazkena (17:15).
- **Luzaketak:** asteazkena (08:15, 20:15), osteguna (20:15), Ziburu aretoan.
- **Krosfit:** astelehena (17:15), asteazkena (18:15), Ziburu aretoan.
- **Kore Stretch:** asteazkena (10:15,

- 17:15, 19:15), Gerriko aretoan; osteguna (10:15, 19:15), Ziburu aretoan; osteguna (17:15), Aldatz aretoan.
- **TRX:** astelehena (16:15), asteartea (19:15), Ziburu aretoan.

Astean bi egun:

- **Gimnasia egokitua:** astelehena (18:15), asteazkena (18:15), Arnas aretoan.
- **Gimnasia terapeutikoa:** asteazkena (09:15, 10:15), Aldatz aretoan; ostirala (09:15, 10:15), Ziburu aretoan.
- **Fit Bike:** astelehena eta asteazkena (17:15, 19:15, 20:15), asteartea eta osteguna (18:15), asteazkena eta ostirala (09:15), Taupada aretoan.
- **Fit Bike/Pump:** asteartea (Fitbike, 14:00), Taupada aretoan; osteguna (Pump, 14:00), Aldatz aretoan.
- **Pilates:** astelehena eta asteazkena (10:15), asteartea eta osteguna (09:15, 15:00, 17:15, 18:15), Ziburu aretoan.

- **Pilates terapeutikoa:** astelehena eta asteazkena (09:15 eta 19:15), Ziburu aretoan.
- **Zunba:** asteartea (17:15, 18:15), Aldatz aretoan; osteguna (17:15) Aldatz aretoan eta (18:15) Arnas aretoan.

Astean hiru egun:

- **Master Gimnasia:** astelehena, asteartea eta osteguna (11:15), Ziburu aretoan.

Express:

- **Body Pump Express:** osteguna (16:45), Ziburu aretoan.
- **Hypopresiboak Express:** asteartea eta osteguna (16:45), Aldatz aretoan.
- **TRX Express:** asteartea (16:45), Ziburu aretoan.

Gazte:

- **Body Pump Express:** osteguna (16:45), Ziburu aretoan.
- **Krosfit Gazte:** osteguna (16:15), Ziburu aretoan.
- **Yoga Gazte:** asteazkena (16:15), Ziburu aretoan.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lantzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI



>> URRUSULAKO KONTUAK (X)

Olateko zentralaren historia



Olateko zentralaren eraikiña. R. ALTUNA

> ROBERTO ALTUNA

Oñatik uraren aprobetxamenduarekin izan dauen harremana aspalditik dator. Izan be, erreken onduan, XIV-XV. gizalditik hasita errota ifiñi ziran lehenengo, eta geruago, XIX.etik aurrera, harein ubidiak eta malatuak aprobetxauaz turbinak. Hala, aurreneko zentral hidroelektrikua martxan ifiñi ziran.

Egin degixogun, bada, errepaso bat historiari Olateko zentralaren une inportantienak ezaguketako:


1893an *Biaín y Cía*-k, Araotz errekiaren urak aprobetxauaz, herriko lehenengo arginddar enpresia sortu eben Oñatin. Hipolito Biaín, Juan Zubia eta Enrique Uriarte oñatiarrak izan ziran eragilliak; euren asmua herriko etxe eta kalietara argindarra ekartia izan zan. Gipuzkoako Merkataritza Erregistraren datuen erabera, probintzian sortutako bigarrena izan zan Donostiako "Compañía eléctrica de San Sebastián"-en ondoren.

Olateko zentralari ekittetako *Biaín y Cía* enpresiak *Lamiategi-Goiko* errotiaren azpiegitturia aprobetxau eben, neurri haundi batian, Araotz errekiaren inddarra ebalteko eukan kontzesiñua balixauaz.

1906ko bagillaren (ekaina) 22xan *La Cerrajera Guipuzcoana* (CG) eta *Vergarajauregi, Resusta y Compañía* (VRC) enpresen bat egittetik *Unión Cerrajera de Mondragon* (UCEM) fabrikia sortu zan Mondraguen. Bere denporan oso enpresa inportantia izan zan, eta bere jarduerarako inddar elektriko premiña haundixa eukanez, *Biaín y Cía*-k bereganatu eben berarendako lain inddar elektriku sortzeko asmuagaz; modu horretan, *Centrales Hidroeléctricas de Unión Cerrajera* izeneko enpresa eratu eben. Oñatiko urak sortutako argindarra, gaiñera, Bergarako premiñai erantzuteko be ebali ziran.

1921ian Olanan eta Urdantegietako zentralen produkziñua nahikua etzala eta, Oñatiko Udalak akordio bat siñatu eben Union Cerrajerarekin Saltos de Olate zentralaren energia sobrantia aprobetxaitteko. Orduan egin zan gaur egungo egoitza nagusixa. Bertan Zapata, Urdaola, Ubao (Tokillo) eta Jaturabeko produkziñua bateratu zan. *UC* akronimua (Union Cerrajera) oraindiok be ikusten da zentralaren hornetan.

1925ian Oñatiko Udalak arginddar horniduria bereganaketako espedientia abixau, eta 1927xan gauzatu eben. Erabagi horrekin Udalak Union Cerrajera instalaziñuen zati batez desjabetu eta horniduriaren monopolixua eskuratu eben.



Olateko zentralaren ur sariaren krokisa. NATUR ESKOLIA

Zentralaren historiarekin jarraituaz, 1929xan, Oñatiko Udalak *Hidroeléctricas Ibérica Antonio Lezama* enpresiarekin akordixua egin eben, berak industriarako inddarraren banaketia bakarrik egin egixen. Gaiñerakua, hau da, etxietarakua eta kaleko argitteria udalaren ardurapeian geratu ziran.

1967xan, Antonio Lezamak bere jardueria Iberduerori saldu ondoren, Oñatiko Udalak inddarra haundiketako eskaria egin otsan herriko energia biharrak haundiketara oiaze-la ikusitta. Iberduerok uko egin eta 2.600.000 pezeta eskiñi otsan Udalarari herriko argindar banaketa-saria erostiaren truke. Eztabaida haundixak izan ostian, Oñatiko Udalak eskintzaia ez onarketia eta bera bakarrik moldaketia erabagi eben, Bustinzulon Eraldaketa Zentru barri bat egindda.

1989xan, Eli Galdos alkate zala, *Oñatiko Ur Jauziak* alkatere anonimua sortu zan.

1992xan erreforma haundixak egin ziran, 350 millioi pezeta inbersiñua egindda.

2015eko garagarrillian (uztaila) EEEK (erderaz EVEK) Oñatiko Udalarari adierazi otsan modu ofizialian Oñatiko Ur Jauziak alkatetik urteteko asmua eukala, eta, orduan Udala bazkide tekniko baten bila hasi zan.

2018xan urrixaren 11n, *GoiEner* energia-kooperatibia Oñatiko Ur Jauziak enpresiarene bazkide bihurtu zan, Mikel Biain alkate zala. Kapital haundiketa bat egin zan, eta 445.000 euroko ekarpena egiñaz, energia berriztagarrixen kontsumo kooperatibiak (*GoiEner*) enpresa oñatiarraren %10eko partaidetzaia eskuratu eben.

2024an eta ondorenguetan, sare hidroelektriko honen azpiegittura guztiak eguneraketako, eta, bihar dan kasuetan barriztaitteko, -Aitzgaiñeko kanala, Jaturabeko presia eta abar- erabagi formala hartuko da edo karua dan aitzakixiaz edota gaur eguneko teknologiak errentagarrixaguak dirala arrazoituta, bertan behera jare eta hiltten itzikiko dira?

EGUR-LAN
AROTEGIA
LINBASAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limbarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

ETXIAN
Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

AGENDA

AUZOETAKO JAIK

IRAILAK 13-14

San Martingo jaiak

Irailak 13, ostirala:

18:58an, etxafuego jaurtiketa; 19:02an, Martintxo txerriaren igoera; 19:06an pintxo-potea; 19:08an, txorimaloak (Jose de Azpiazu musika eskolako musikariekin); 19:30ean, elkarretaratzea Sarek deituta, eta 22:03an, kontzertuak: Ezpalak, Ithaka eta Inguma. **San Martin**

Irailak 14, zapatua:

11:00etan, txikitrail (izen-ematea 10:30ean); 12:00etan, Oñatz Dantza Taldeko haurren erakustaldia; 13:00etan, gaztetxoendako entzierroa; 13:30ean, txakolin feria; 14:30ean, auzo bazkaria; 16:15ean, haurrendako papiroflexia tailerra; 16:30ean, mus txapelketa; 17:30ean, gaztetxoendako entzierroa; 18:30ean, txorimaloak (Aretxabaletako dultzaineroekin). **San Martin**

IRAILAK 15

Zañartuko jaiak

Irailak 15, domeka:

12:00etan meza egingo dute auzoko ermitan. Ondoren luntxa egongo da joango diren guztiendako eta ostean auzo bazkaria egingo dute auzotarrek Arriurdiñetan, bertako elkartearen. **Zañartu**

ERAKUSKETAK

IRAILAK 23 - URRIAK 13 / 18:00-20:00

Margo erakusketa

San Migel jaien barruan egingo den aire libreko margo lehiaketako eta Oñatiko Margo Taldeko kideen pintura erakusketa. Itxita egongo da irailaren 28tik 30era eta urriaren 5etik 7ra. **Kultura etxeko erakusketa gela**

IRAILAK 27 - URRIAK 7 / EGUN OSOZ

Argazki erakusketa

Ilunpetan argazkilari taldekoen argazki erakusketa. Txinparta bertso eskolako kideek egindako bertsoei jarri dizkiete aurten argazkiak.

Plazako zutabeak

IRAILAK 8 - URRIAK 7 / ASTELEHENAK 08:30 - 15:30
ASRT-IGAND 08:30 - 23:30

Argazki erakusketa

Boisetik (AEB) Oñatira ikasketak egitera etorri izan diren ikasleen hainbat garaitako erakusketa. Argazkiak eta beste: Boise-Oñati. 1974-2024.

Eltzia (tabernatik)

KIROLA

IRAILAK 14 / 10:00

Oñati proba

Txirindularien lasterketa. **Unibertsitate etorbidea**



IRAILAK 17 / 18:30

'Alzheimerrarekin elkar bizi' hitzaldia

Irailaren 17an, martitzena, oñatiarrek dituzten askotariko kezkei eta beharrei erantzuteko asmoz, Gipuzkoako Gaixo Alzheimerdunen Familiakoen Elkartearen eskutik izango den hitzaldia. **Kultura etxeko zine aretoan**

IRAILAREN 22/ 18:00

Hubris eta rodeo taldeak antixenan

Suitzako Hubris eta Zestoako Rodeo taldeen aldeko apustua egingo dute Burrunda faktoriakoek. Hubris talde instrumentala da, post-rock doinuak lantzen dituena; Rodeo taldea, rock eta stoner doinuekin dator (3 murrizua, 8 normala). **Antixena gaztetxean**



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Asesuruaak


Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Ebebizitza
✓ Autoak	✓ Ortzak	✓ Auzuekia
✓ Biktza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Hebeia: Martxo 5. beha
 ☎ 943 16 79 94
 mikel.egana@gentes.catalanoccidente.com



Kultur ekitaldiei buruzko informazioa
eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



IRAILAREN 23TIK URRIAREN 13RA ARTE /
18:00-20:00

Margo erakusketa

Aire libreko margo lehiaketa egingo da aurten ere herriko jai nagusien barruan. Irailaren 23an izango da, domeka. Lehiaketako margolanak, helduenak zein gazteenak, eta Oñati Margo Taldeko kideek egindako

IKASTAROAK

IRAILAREN 11 - ABENDUAK
18/ 14:45-16:45 EDO 17:00-19:00

Zizelkatze ikastaroa

Francisco Javier Arrieta irakaslearen eskutik, asteazkenetan izango dira ikastaroak, eta izena emateko zizelkatu@gmail.com helbidera idatzi behar da. (Bazkideek 50 euro, langabeek 40 eta langileek 60). **Eltzia**

IRAILAK 16, 18, 23, 25 /
09:30-11:30 EDO 19:00-20:00

Yoga ikastaroa

Oñatiko yoga eskolak lau eguneko hastapen ikastaroa antolatuta du irailerako. Bi ordutegi eskainiko ditu, bat

aukeratzeko. Izen-ematea yogaonati@gmail.com-en edo 610 95 37 94 telefono-zenbakian. **Oñatiko Yoga Eskola**

IRAILAK 7, 14, 21 / 09:30

Kalistenia ikastaroa

Kiroldegiko harreran edo gaztelekuan eman behar da izena. **San Martingo kalistenia-gunea**

JAIEN ATARIKOAK

IRAILAK 17 ETA 19 / 18:30

Haurren danborrada

Entsegu orokorrak. **Eltzia**

IRAILAK 25 / 19:30

NAGUSIEN

DANBORRADA

Entsegu orokorra. **Eltzia**



IRAILAK 13-16

Nagusiak: 'Isla perdida'

Fitxa: Espainia (2024). Zuzendaria: Fernando Trueba. Iraupena: 128 minutu.
Prezioa: Bost euro (astelehenean lau euro).



IRAILAK 14-15

Haurrak: 'Del revés 2'

Fitxa: AEB (2024). Zuzendaria: Kelsey Mann. Iraupena: 96 minutu.
Prezioa: Lau euro.



IRAILAK 20-23

Nagusiak: 'Estación Rocafort'

Fitxa: Espainia (2024). Zuzendaria: Luis Prieto. Iraupena: 89 minutu.
Prezioa: Bost euro (astelehenean lau euro).



IRAILAK 21-22

Haurrak: 'Gru 4. Mi villano favorito'

Fitxa: AEB (2024). Zuzendaritza: Patrick Delage, Chris Renau. Iraupena: 95 minutu.
Prezioa: Lau euro.



Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / Ikuslearen Eguna)
Haurrak: Larunbata eta Igandea (17:00)



FARMAZIAK

ANDUAGA

San Lorentzo 3

943 78 21 16

IRAILAK 17, 25, 26, 29 eta 30.

URRIAK 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1

943 78 01 22

IRAILAK 13, 14, 15, 18, 19, 27 eta 28.

URRIAK 8.

GARATE

Kale Barria 42

943 78 05 58

IRAILAK 12, 16, 20, 21 eta 22.

URRIAK 1, 9, eta 10.

JULDAIN

Kale Barria 6

943 78 11 28

IRAILAK 23 eta 24.

URRIAK 2, 3, 5, 6, 7, 11, 12 eta 13.



MERKATU TXIKIA

ETXEA SALGAI

Babes ofizialeko etxebizitza salgai Ugarkalde auzoan. Deitu: 617 241 053.

HEZKUNTZAN

esperientziadun neska haurrak zaintzeko edo/eta klase partikularrak emateko prest. Goizez lehen orduak libre eta arratsalde guztiak. Deitu lasai: 664 357 505

ALOKATZEKO Etxe bila dabilen alaba bakarreko familia gara. 632 696 233.



ODOL ATERATZEA

IRAILAK 20

16:30-20:30, MUko
Enpresagintza fakult.

Hitzordua hartzeko:

943-00 78 84.



**Eskolarako itzulera bakoitzean haiek
aldatu egiten dira. Haien gelak ere bai.**



amuebladoramondragonesa.com
C/ Zigarrola 1, Arrasate (Gipuzkoa)

